

LIBERTAT ALS
D'ALTSASUKOAK
ASKE!

Elkartasunaren horma

Elias Tañok Altsasuko auzipetuen aldeko horma-irudia margotu du / 23



**10 urte eta erdi preso
egon ondoren A
Lamako kartzelatik
atzo atera zen Hodei
Ijurko Iroz** / 10

**Zahartze aktiborako
lastaileko egitarauan
izena emateko epea
zabalik dago
dagoeneko** / 10



**Uharte Arakil-Beriain
Km Bertikalean 250
korrikalarik hartuko
dute parte igandean,
10:00etan** / 13

**Ergoienako Bira
jokatuko da bihar
10:00etan Ergoienako
Eguna ospatuko duen
Unanun** / 17



**Gure Zirkua euskal
zirku ibiltariak
Urdiainen jarri du
karpa. Gaur, bihar eta
etzi emanaldiak** / 21

**Altsasuko ludotekak
bere 25. urteurrena
ospatuko du
lastailean hasiko
duen ikasturtean** / 7

**Lizarragako mediku
etxea zen eraikinean
kontzejuak taberna
eta denda txikia
jarriko du** / 9

**Angel Bados
eskultore olaztiarrak
Espainiako Arte
Plastikoen Saria
irabazi du** / 22

**SAKANA
Itsasi AEK euskaltegia**

Izena emateko azken eguna:
irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46, behea
ALTSASU
948 468 258
sakana@aek.eus

Diru-laguntzak

Sakanako Mank: BEKAK

aek euskara
praktikoa

Zu hemen zaude,
AEK ere bai



EUSKARA-IKASTAROAK

Alusti Testa hegan hasi da

JOSU ALUSTIZA NAVARRO FISIOTERAPEUTA

Josefina Arregi klinikan sortutako Alusti Testaren balioztapen artikulua argitaratu da Revista Española de Geriatria y Gerontologia aldizkariaren irail-lastailleko zenbakian

Altsasu ALFREDO ALVARO IGOA

Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkartearen argitalpen ofizialean testaren berri argitaratzeak zientzia-komunitatearen aitortza jasotzea da. Eta lau urteko lana borobiltzen du.

Josefina Arregi klinikan sortu zenuen Alusti Testa eta, dagoeneko, hemendik kanpo hegan egiten hasi da, ezta?

Hala da. Behin testa sortuta, zientzia-aldizkari batean argitaratu da eta balioztatu dugu. Horrek ekarri du jendeak Alusti Testa ezagutzea eta, ondorioz, estatuko hainbat ospitaletan erabiltzen ari dira. Esaterako, Madrilgo Gregorio Marañonen. Zuk esan bezala hegan egiten ari da. Hori guretako, denendako, pozgarria eta ona da.

Zer da balioztatzea?

Prozesu luze eta zail bat da. Argi utzi behar duzu egindako eskala hori erabilgarria dela eta diseinatuta dagoen helburuetarako egokia dela. Proba psikometriko batzuk pasatzen dizkiegu eta horien bidez zuk erakutsi behar dituzu, besteak beste, baliagarritasuna, espezifikotasuna, fidagarritasuna. Eskala egokia dela erakusten duten gauza tekniko asko erakutsi beharra daukazu. Ez hori bakarrik, erabiltzen diren beste eskalekiko konparaketa egin behar duzu, eta ezaugarriak betetzen dituela erakusten duten ikerketak ere egin behar dituzu. Azken balioztapena ematen diona da



21 urteko eskarmentua du Josu Alustiza Navarro fisioterapeutak.

gainerako osasun profesionalen erabilera. Benetako balioztapena azken hori da, beste profesionalak erabiltzea.

Zientzia-aldizkarian argitaratzeak ere ematen dio, ezta?

Zientzia-aldizkari horiek tribunal modukoez osatuta daude. Eta haiek onartu behar dute aldizkarian argitaratu beharrekoa. Onespena emateko gauzak oso-oso ondo egin behar dira. Argitaratzeak esan nahi du gauzak ongi egin ditugula eta eskalak bere helburuak betetzen dituela. Argitaratu den aldizkaria geriatriari buruzko estatuko garrantzitsuenak da eta horrek Alusti Testa gehiago ezagutarazteko ateak irekitzen dizkigu, aldizkariaren web orriaren bidez nazioartean ikusteko aukera izanzen baitute. Dagoeneko Ameriketarik-eta testari buruzko informazioa eskatuz e-posta mezuak jaso ditugu.

Nolako probak egin dituzue Alusti Testa balioztatzeko?

Alusti Testa adindu guztiendako baliagarria da. Hau da, funtzionalki mendekotasun handia dutenendako edo funtzionalki oso-oso egoera onean daudenendako. Eredu guztiak betetzen ditugu. Eredu guztiak baloratzeke gai gara. Ikerketak, lehenik eta behin, egoera kognitibo guztiak aztertu ditugu. Mota guztietako pertsonen pasa diegu Alusti Testa, haien egoera ikusteko. Alusti Testa pasatzeaz aparte erabiltzen diren test nagusiak pasa ditugu. Adibidez, klinikara sartzean eta joaterakoan testa pasatzen diegu. Fisikoki oso ongi daudenei pasa diegu, mantentze-gimnasia egiten dutenei... Egoera desberdinetan dauden pertsonen. Eskala guztiekin konparatu ditugu. Emaitza horiek guztiak estatistikoki aztertu behar dira, eta zer emaitza jaso ditugun ikusi. Lau urteko lanaren ondorioa da. Behar da gauzak ongi egitea, ongi aztertzea. Emaitzak egokiak ere izan behar dira.

Oker ez banago, argitaratu duzuen artikulua 300 pasa kasuren azterketa dakar.

Bai, artikuluan 363 pazienteren berri ematen dela uste dut. Baina orain, eskuartean, 600 eta piko pazienteren datuak daukagu. Lanean segitzen dugu. Baina, bai, lan asko dago horren atzetik.

Adindu guztiendako testa egokia dela diozu. Helburua osasun sistema publikoan barneratzea eta osasun etxeetan testa pasatzea da?

Bai. Eta errealitatea ere hori da. Testa sortu zen gure eguneroko lanean gabezia batzuk genituelako. Gaur egun erabiltzen diren testek helburu hori betetzen ez dutelako. Eskura genituen eskalak ez ziren gai mendekotasun handia duten adinduen, edo kognitiboki gaizki daudenaken egoera fisiko eta funtzionala baloratzeke. Horregatik sortu zen Alusti Testa. Gabezia horri erantzuna ematea lortzen dugu. Ondorioz, guretako oso erabilgarria den bezala pertsona horiekin lan egiten duten osasun arloko beste profesionalendako ere erabilgarria izanzen da. Adibidez, Gregorio Marañon ospitaletan ezagutu zuten Alusti Testa eta erabiltzen hasi dira. Ikerketa bat egiten ari dira, nazioarteko aldizkarian argitaratzeko. Eta horien moduan beste batzuk ere badira.

Gregorio Marañon ospitalea jende askok begiratzeko dion ispilu bat da.

Izen handiko ospitalea da. Denok egiten ditugu gauzak ongi, baina ospitale horietan gauza guztiak zehatz-mehatz egiten dituzte. Hor Alusti Testa erabiltzen badute, gainontzeko profesionalak esaten dute: hor erabiltzen ari badira zer edo zer ona delako da. Gainontzeko profesionalen interesa handiagoa da.

Alusti Testa gora. Alusti Testa beharra. Baina, zer da?

Eskala bat da. Horren bidez lortzen dugu adinduen egoera fisiko eta funtzionala aztertzea. 10 puntuz osatuta dago. Puntu bakoitzean egoera funtzionalaren atal bat aztertzen dugu. Atal bakoitzak informazioa ematen digu eta guztien baturak puntuazio orokor bat ematen digu.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Horrek esaten digu pertsona horren mugikortasuna nolakoa den. Beraz, informazio orokorra dugu, baina informazio espezi-fiko asko ere bai. Oso denbora tarte txikian pasatzen da. Hori du ona. Eta aldaketak neurtzeko oso egokia da. Adinduaren egoera fisiko eta funtzionalean edozein aldaketa txiki gertatzen dela, Alusti Testa gai da hori ikusi eta neurtzeko.

Beraz, diagnosia izanda jarraipena egin eta tratamendua ematea errazagoa da.

Bai. Hemen egiten dugun talde lanaren ondorioz adinduak arlo askotan hobetzen dira. Arlo fisiko eta funtzionala horietako arlo bat da. Hobekuntza hori neurtu eta erregistratu egin behar da. Ditugun eskalekin hori neurtzeko gai ez ginen. Alusti Testarekin lortzen dugu hori neurtzea. Ondorioz, klinikara sartzean pazientearen egoera ebaluatzen dugu eta Alusti Testaren bidez bere gabeziak zein diren ikusten dugu. Horrek lan zehatzago bat egiteko aukera ematen digu. Neurtu eta lana hobe egiteko aukera ematen digu. Alusti Testa pasatzeko 5 minutu nahikoa da. 4 minututan ere pasatzen da.

Behin Alusti Testa pasata, hurrengora arte denbora pasa behar da? Arbitrarioa da?

Guk Josefina Arregi klinikan sartzerakoan eta etxera doazenean egiten dugu. Alusti Testa pasatzen dugu konparatzeko nola zegoen etorri zenean eta etxera joan denean zein egoeran dagoen. Nahi baduzu hilabetera pasa dezakezu pazientea nola dagoen ikusteko. Anbulatorio-errehabilitazioa egiten dutenak, eguneko zentrora datozenak, funtzio-unitatera etortzen direnak, horiek guztiak Alusti Testarekin baloratzen ditugu.

Tresna hori zuretake perfektua, beraz.

Bai. Oso gustura nago. Nituen gabeziak Alusti Testaren bidez betetzen ditut. Ikusten dugu zenbat hobetzen duen eta zein arlotan hobetzen diren.

Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoan, zure kezka pertsonal batetik sortu zen.

Arazoa hori zen, pazienteak hobetzen zirela eta hori neurtzerik ez genuela. Aspaldiko kontua da. Gabezia hori zegoela ikusten nuen. Interneten begiratu eta ez zegoen eskala egokirik. Niretako interesgarriak ziren da-

tuak jasotzen hasi nintzen eta eskuartean eskala bat izan nezakeela ikusi nuen. Eskala diseinatzeko hasi nintzen eta hortik sortu zen Alusti Testa.

Klinikan sortu, baina 4 urtetan makina bat proba han eta hemen egin dituzue.

Josefina Arregi klinikan jaso ditugu datu gehienak. Baina Iruñeko Erruki etxeko erresidentzian ere datu pila jaso ditugu. Altsasuko kiroldegian mantentze-gimnasia egiten dutenekin ere azterketak egin ditugu. Donostian, matxaka deitzen diet nik. Adinduak dira, oso kirolariak. Europako atletismo txapelketetan parte hartzen dute. Haiei ere Alusti Testarekin azterketak egin dizkiegu, zein puntuazio ematen duten ikusteko. Konparazioak ere gainontzeko eskalekin. Bai, ikerketa egiteko garaian toki askotara mugitu gara. Bestetik, Alusti Testa ezagutarazteko ere kongresuetara joan behar izan dugu. Heldu den astean Zaragozara joan beharra daukat testa aurkeztera. Batetik bestera bueltak gabiltza.

Kongresuetan izan zarete 4 urte hauetan. Haietan ere aitortzak jaso dituzue.

Behin Alusti Testa sortu eta gero datuak biltzen hasi nintzen eta lortzen genituen emaitzak erakutsi behar zirela ikusi genuen. Kongresuetan posterren eta komunikazioen bidez gure emaitzak jendeari erakusten hasi ginen. Estatuko bi sari jaso ditugu. Kongresuetan tailer gisa aurkeztu dugu. Aurkezpenetan jendearen harrera oso ona izan da eta sariak jaso ditugu. Gauzak beti egiten dira ongi. Jende guztiak egiten ditu ondo. Baina sariak jasotzea guretako poz handia da.

Bide onean joaten zareten seinale, ezta?

Bai. Eta gauzak ongi egiten ari garen seinale. Lanean segitzeko indarra ematen digu.

Lanean jarraitzeko... Buruan beste ideiarik?

Orain lehen asmoa da Alusti Testa osasun arloko langileei iristea. Adinduekin lan egiten

"EMAITZAREN ARABERA, APLIKAZIO BATEK ZER ARIKETA EGIN AZALDUKO DIGU. HORRETAN ARI GARA"

ari den langile pila dago. Aldizkarian argitaratu dugu testa, baina jende guztiak ez ditu aldizkariak irakurtzen. Helburua da jendearengana iristea, jendeak Alusti Testa ezagutu dezan eta gero, gustatzen zaien edo ez, erabilgarria zaien edo ez ikusiko da. Baina, behintzat, ezagutu dezatela. Hori da lehenengo helburua. Gero beste proiektu batzuetan sartuta gaude. Alusti Testarekin pertsonaren egoera ebaluatu egiten dugu. Baina ebaluatuta bakarrik pertsona ez da hobetzen. Hobetzeko lana egin behar da. Ariketa fisikoko programa bat egin dugu, esaterako. Bideoz grabatu dugu. Informatika enpresa batekin aplikazio bat sortzeko lanean ari gara. Han Alusti Testaren emaitzaren arabera azaltzen zaizun bideoetan zer ariketa egin behar dituen. Hori adinduendako, etxean dauden zaintzaileendako eta abar. Aukera izateko beraien egoeraren araberrako entrenamendu fisikoa egiteko. Hori dena irudien bidez.

Osasun arloko langile guztiengana iristeko Osasun Departamentuarekin harremanetan jarri beharko zarete, ezta?

Gure helburua da gainontzeko langileek beste lantresna bat izan dezatela. Egokiena litzateke agintariak, edo erabaki horiek hartzen dituztenen onspena jaso eta beraiek esatea: Alusti Testa erabiliko dugu ofizialki osasun publikoan pertsona hauen balorazioa egiteko. Baina, beno, pixkanaka. Gu pausoz pausoz goaz. Horrelako zer edo zer etortzen bada, ongi etorri izanen da. Gure esku ez dago. Halakoetan faktore askok parte hartzen dute. Ikusiko da.

Alusti Testak Josefina Arregi klinika oraindik eta ezagunagoa egingen du.

Alusti Testa Josefina Arregi klinikaren lanaren ondorioa da. Nik diseinatu dut, nik sortu dut. Baina ni naizena naiz nire lankideei esker, hemendik pasatu diren lankide guztiei esker eta hemendik pasatu diren gaixo guztiei esker. Beraz, Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoa Alusti Testaren gakoa da. Jatorria hemen dago. Klinikarendako oso pozgarria eta oso ona da. Azkenean, Alusti Testaren atzetik Josefina Arregi klinikaren izena doa. Hortik goazela Josefina Arregi klinikaren izena ere zabaltzen ari gara.





ASTEKOA

XABIER REPARAZ ESTRAMIANA

Aukerak

Aukerak anitz gaur. Ezin erabaki horrenbesteren artean, bata aukeratuz gero, bestea galduko baitugu. Aukera kostua esaten diote ekonomialariek, erabakien aurrean sortzen zaigun egonezina eragiten digun horri. Hura badaramat, bestea ezin. Batzuetan biak eramanez, beldur horri aurre egin gabe, erabakien ardurari ihes egiten diogu. Jendartean zabaltzen diren mezuek aukerak areagotzen dizkigute etengabe. Aukera kostua onartezin bihurtzen dute sarri. Nola galdu esperientzia hori, nola kale egin eskaintza bikain horri, edo nola baztertu eduki dezakezun arren, ez duzun hori.

Adibide asko datozkit burura, ezin buruturik atzean utzitako aukeren mamuak bazter guztietan ageri zaizkit. Damua. Zaila da bide hura jarraitzea guk erabaki genuela onartzea. Baina haren ondorio baino ez gara. Geure aukeren ondorio huts. Bidean utzitako bidegurutzeen emaitza bizitzaren labirintoan.

Europako iparraldeko herrialdeetan, diotenez, damuaren mamua ahuldu egiten da. Europaren hegoaldeko moral katolikoak damuaren beharraz bete zigun jendartearen

NOLA GALDU ESPERIENTZIA HORI, NOLA KALE EGIN ESKAITZA BIKAIN HORRI

izaki, klimaren eragina euren kontzientzietan. Aukerak anitz, erabakiak aske, haien ondorioak kontzientzian astun. Bidea eginez jakitun, ez gaitezen mamuen beldur izan, haien menpe ezin baikara izan libre. Aukeran, ez ibili atzera begira.

subkonszientea. Damuan barkamena aurkitzen dela esan ziguten. Baina ipartar moral protestanteen, damurako ez da lekuri. Haien erabaki eta aukeren esklabo, hauek onartu eta azken ondorioetara eramatea baino ez dute ikusten. Hotzagoak

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Datorren hipoteka lege berria

IRATXE KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

Hipotekekin arazo franko sortu eta gero, Gobernuak hipoteka lege berria egin nahi du. Gaurkoan ekarriko duen hainbat berrikuntza azalduko dugu.

Publizitateak interesa, maileguaren gastu guztiak eta lotutako aseguruak jakinarazi beharko ditu. Maileguen publizitate orok honako hauek jaso beharko ditu: interesa, aldakorra edo finkoa den, eta maileguaren guztizko kostuak jasotzen dituen gastu guztiak. Horrekin batera, maileguaren Urteko Tasa Baliokidea adierazi beharko da. UTB barnean dauden konpromiso guztiak batu behar dira, adibidez, funtsen erabilera, errenbultsoak eta hitzartutako gastuak. Lotutako aseguruak badago, publizitateak hala adierazi beharko du.

Idatziz jakinarazi beharko dira interes-tasa, zoru-klausula, eraketa-kostuak, ez-ordainketaren ondorioak eta dibisa anitzeko klausulak. Informazio hau araupetuko ohartarazpen fitxan jaso

beharko da. Fitxa hau kontsumitzaileari eman beharko zaio gutxienez eskritura sinatu baino zazpi egun aurretik. Mailegu aldakorren kasuan, jakinaraziko dira ere egoera ezberdinetan ordaindu beharreko kuota eta polizaren baldintzak ere, lotutako aseguruak badago.

Notarioak informazioa eman behar du sinatu aurretik. Kontsumitzailea notarioaren aurrean agertu beharko da, beranduenez, eskriturak sinatu baino egun bat lehenago notarioak eragiketa baimentzen duen notario-ziurtagiri bat igor dezan. Akta honek ezin izango du bezeroarentzat inolako kosturik izan. Gainera, kontsumitzaileak zazpi eguneko aurrerapenez eskuz idatzitako aitorpena egin beharko du maileguari buruzko informazio guztia jaso duela, arriskuak ulertzen dituela eta onartzen duela adieraziz. Erregistroak ezin izango du eskriturarik onartu aipatutako notario-aktarik gabe.

Derrigorrezko aseguruak badago, bankuak mailegua eskaini behar du ere aseguru horiek gabe. Lege berriak hipoteka-mailegua derrigorrez beste produktuei lotzea debekatzen du, adibidez, aseguruak, aukerarik ematen ez bada mailegua bereiz kontratatzeko.

Hala ere, bankuak bezeroa aseguru bat izenpetzera behar dezake: maileguaren ordainketa-asegurua, hipotekadun pisuaren kalteei buruzkoa edo bestelako aseguruak. Baina erakundeak beste polizak onartu beharko ditu bankuak eskainitako baldintza baliokideak badituzte.

Maileguaren amortizazio aurreratuagatik komisioak murriztu edo ezabatzen dira. Interes aldakorrek maileguetan, bankuak bi aukera hauek izango ditu amortizazio aurreratuaren (osokoa edo partziala) gehienezko komisioak ezartzeko: % 0,5 amortizatutako kapitalaren gain lehenengo hiru urteetan edo % 0,25 maileguaren lehenengo bost urteetan. Tasa aldakorretik finkora aldatzeko komisioak ere nabarmenki murrizten dira.

OBJEKTIBOTIK

Putrea bisitan

Herritarren harridura sortu zuen bisita izan zuten Ihabarren agorrilaren 12an, igande goizean: sai gazte bat agertu zen. Antza hegaztia gosetua zegoen eta herrian hara eta hona ibili zen. 112 telefonora hots egin zuten eta basozainak hura jasotzera joan ziren.



MAIALEN HUARTE

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK



Euskaraldian izen ematea zabalik dago

Udazken akaberran euskararen erabilera handitzeko ariketan parte hartu nahi dutenek dagoeneko izena eman dezakete. Bat egin duten ibarreko 10 herrietako batzordeetan edo www.euskaraldia.eus web orrian eman dezakete izena

SAKANA

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean sekula baino euskara gehiago hitz egitea eta entzutea da erronka. Ariketa hori proposatzen du Euskaraldiak, 11 egun euskaraz ekimenak. Euskal Herri osoan egingen den ariketa soziala da. Bere helburua euskararen erabilera handitzea da. Baina baita hiztunen arteko komunikazioan dauden inertiak haustea ere. Hala, herritarren eguneroko harremanetan hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial eta kolektiboa da. Kolektiboa Euskal Herri guztian egingen baita.

Euskaraldian izena ematen dutenek alde aurretik euren buruari galdera pare bati egin beharko diote: inguruko senide, lagun, lankide, auzokide eta bestelako pertsonekin zein hizkuntzatan hitz egiten du? Bada, kizu zure inguruan zenbat pertsonak ulertzen duten euskara? Bai batoren bai bestearen erantzunak dira uste baino jende gehiagorekin egin daitekeela euskaraz. Beraz, Euskaraldian parte hartzen dutenek 11 egunez bere inguruko eremu guztietan euskaraz hitz egiteko aukera izanen du, etxetik hasi, kalean eta lantokian segi, ikastetxean, lagunartean edo aisialdian ere.



Euskaraldiaren Altsasuko aurkezpena igandean egin zen.

Horretarako bi baldintza besterik ez dira behar: 16 urtetik gorakoak izatea eta euskara ulertzeko gai izatea.

10 herri izena emanda

Euskaraldian parte hartu ahal izateko lehenik herriek eman behar dute izena. Behin hori egin ondoren, herrietako biztanleek euskaraldian parte hartzeko aukera dute. Euskal Herrian dagoeneko 350 herritik gora eman dute izena euskararen erabilera handitzeko ariketan. Herri bakoitzean Euskaral-

dia aurrera eramateko batzorde bana sortu da. Haietatik 10 sakanarrak dira: Irurtzun, Uhartte Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakailu, Urdiain, Altsasu eta Olatzagutia.

PARTE HARTZEKO 16 URTE BETETA IZAN BEHAR DIRA ETA EUSKARA ULERTU BEHAR DA

Protagonistak



Ahobizi

Ahobizi izatea erabakitzen duten pertsonak euskara ulertzen duten pertsona guztiei euskaraz hitz egingen diete, edonon eta edonoiz. Ahobizi eta Belarriprest ikurra daramaten guztiekin euskaraz hitz egingen dute. Txaparik eramaten ez badute ere, euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz ariko dira. Aurreneko hitza euskaraz egingen dute. Gertatuko zaie ez jakitea parean dutenak euskalduna den edo ez. Hala ere, ezagutzen ez dituzten pertsona guztiei ere aurreneko hitza euskaraz egingen diete. Gerta daiteke euskaraz eta gaztelaniaz erantzutea. Halakoetan, ulertzen duenez, Ahobiziek euskaraz hizketan segituko dute. 11 egunez ahobizi txapa eramanez dute gainea. 11 egunez ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egiteko prest eta gogoz zaude? Hala bada, ahobizi zara.



Belarriprest

Belarriprestek haiekin euskaraz hitz egiteko gonbidapena egingen dute 11 egunez. Elkarriketaren edo egoeraren arabera euskaraz edo erdaraz erantzuten dute. Baina ingurukoei euskaraz hizketatzeko eskatuko die, euskara ulertzen dute eta. Belarriprest txapa izanen dute aldean. 11 egunez ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egitea zail ikusten duzu eta askorekin euskaraz hitz egin arren beste askorekin erdaraz arituko zara? Baiezko erantzuna bada, belarriprest da zure aukera, eta ahobiziei babesa emanen diezu.



Biak garrantzitsuak

Ahobizi edo Belarriprest izatea ez dago hizkuntza gaitasunari lotuta. Euskaraz ongi moldatzen dena Belarriprest izan daiteke. Eta euskaraz ongi moldatzeko bidean dagoena ahobizi izan daiteke. Euskaraz hizketatzeko ariketa da gakoa. Bi rolak dira garrantzitsuak eta beharrezkoak.

Esataria: Eneida Gaurko gaiak:

- Josu Alustiza Navarrokekin Alusti Testaren balioztatzeaz
- Joxepi Marquinez Arakamarekin Altsasuko ludotekaren 25. urteurrenaz
- Sakanako albisteen errepasoa

Ostiralero 9:30ean
SAIOA

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Unanuk hartuko du Ergoienako Egunaren bigarren edizioa

Ergoiendarrak, bai helduak bai gazteak, elkarrekin ibarreko eguna ospatzea. Ergoienako hiru herrietako biztanleek elkarrekin partekatze festa egun bat. Helburu horrekin hasi ziren joan den urtean Ergoienako Eguna ospatzen. Lizarragan izan zen aurrena eta hari lekukoa Unanuk hartu dio aurten. Ospakizunaren egitaraua Ergoienako Bira lasterketak abiaraziko du. Parte-hartzaileek 09:00etatik aurrera eman dezakete izena. Proba, berriz, 10:00etan hasiko da. Unanura joaten direnek, korrikalarietz aparte, artisauen lana bilduko duen azoka izanen dute ikusgai. Sari banaketaren ondoren bazkaria dago.

Ganboaren Sua txakurra Euskal Herriko txapeliduna

Gerediaga elkarteak antolatuta, Axpe-Atsondok 52. Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketa hartu zuen larunbat arratsaldean. Iparraldeko eta hegoaldeko lurralde bakoitzeko bina ordezkari eta joan den urteko txapeliduna neurtu ziren. 11 txakurrek bi proba egin behar izan zituzten. Aurrenekoan puntuazio handiena lortu zuten lauak bigarreneira pasa ziren. Bi lanean lortutako puntuazioagatik Aritz Ganboa arbazuarraren Sua txakurra izan zen irabazlea, 341 puntu lortuta. Axpe-Atsondon lortutako garaipenak igandean Oñatin jokatu den nazioarteko txapelketarako txartela eman die Ganboari eta Suari.



Mundu osoko pertsonak elkartu ziren suaren inguruan.

Munduko Arrozak altsasuarren elkargune izan ziren

Lau edizioaren ondoren, antolatzaileak festetatik atera eta beste egun batean antolatzea aztertzen ari dira

ALTSASU

Marokoko, Ekuadorko, Bangladesho, Valentziako, Saharako eta Sakana Harrera Haranako kideen arrozak. Bat mina, haragiarekin bestea, barazkiekin eгина, txapiroiekin egindako arroz beltza, haragidun couscousa... Errezeta horiek guztiak dastatu ahal ziren igande eguerdian Munduko Arrozak ekimean. Arroza aitzakia hartuta jatorri desberdinetako altsasuarrrak harremanetan jarri eta elkarren berri emateko antolatu zen ekimena Zubeztia plaza-ko karpan.

Arroza nola prestatzen zen ikusteaz eta dastatzeaz aparte, karpan haurrendako txokoa eta erakusketa izan ziren.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko teknikari Bego Zestau Baraibarrek azaldu zigunez, etorkizuneko erronka da Munduko Arrozak Altsasuko festetatik ateratzea eta urteko beste egunen batean antolatzea. Horretarako, orde, kulturartekotasunaren sustapenean eta antolakuntzan aritu nahi duten altsasuarren laguntza beharko litzateke.



Aziendak ikusmin handia piztu zuen Irurtzuna hurbildu zirenen artean. MAIALEN HUARTE ARANO



Harrera arrakastatsua izan du ganadu azokak

Abereak, ekoizleen merkatu gardena eta artisau azoka izan ziren goizean, harri-jasotzaileak eta aizkolariak, berriz, arratsaldean. Irurtzuna hurbildu zirenek gozagarri ugari izan zituzten egun ederra pasatzeko

Maialen Huarte Arano IRURTZUN

Seigarren urtez jarraian bizilagunek harrera egin zioten Irurtzun-Arakilgo ganadu azokari. Behiak alde batean, bestean oiloak. Aurreraxeago zaldiak eta astoak, eta baita ardiak ere. Ahuntzek eman zieten txikienei atentzioa: adar oker dotoreak zituzten. Abereek aurre egin zioten goiz eguzkitsuari. Artisauek plaza eta Lizarra kalea beteak zituzten: bitxiak, Lakabeko ogia, gozoak, ukenduak... denetarik aukeran. Goizak aurrera egiten zuen heinean taloek ere izan zuten tokia askoren ahotan eta gazta ere dastatzeko aukera handia izan zen. "Aurten ere inguruko jendea hurbildu

da ganadu azoka ikustera. Arrakastatsua izan da seigarrenez azoka" esan zuen Irurtzuno alkate Aitor Larraza Carrerak.

Gazta dastatze herrikoia

Inoiz baino parte-hartzaileagoa izan nahi zuen gazta txapelketa. Irekia da eta edonork proba detzake lehiaketara aurkeztu diren gaztak, eta gustukoenaren aldeko botoa eman. Bigarren aldiz egin zuten horrela eta parte-hartzea handitu zen: "Irurtzun-Arakilgo ganadu azoka gero eta gehiago hurbiltzen da bizilagunengana. Bertara hurbiltzen direnek parte hartzeko aukera izaten dute, eta horrek ere erakarri egiten du jendea", esan

zuen Larrazak. Egozkueko Marta Perez Loperenak lortu zuen lehen saria. Podiuma Arruazuko Albi Gaztak eta Urbasako Carlos Aramendiak osatu zuten. Azokan parte hartu zutenek ondoren bazkari batekin segitu zuten eguna.

Arratsaldean, berriz, herri kirol erakustaldia izan zen. 250 kiloko harria altxatzea lortu zuen Inaxio Perurenak. Aizkoran ere izan zen lehia. Irurtzuno aizkolarien eskolako kideak izan dira egurra txikitzen: Mikel Razkin, Xabi Lizaso, Eneko Pagola eta Beñat Jauregi. Azken biek lortu dute egurrik handiena azkarren moztan: 10:20 segundo behar izan zituzten.

Udalak antolatu daitezkeen ikastaroez galdetu du

Proposamenak udaletxeko buzoian utzi edo kultura@arbizu.eus e-posta helbidera bidali daitezke

ARBIZU

Arbizuko Udalak ikasturte berriko ikastaroak antolatu aurretik arbizuarrei euren intereseko kurtsoez galdetu die. Urte akabera bitartean antolatuko ditu udalak ikastaro edo tailer

horiek, asteburu bateko edo biko iraupena izanzen dutenak. Udalak honako ikastaroak proposatu ditu: Internet eta informatika (hasiera), antzerkia, mendiko orientazioa eta toponimia, euskal dantzak, euskal dantzak

haurrendako, sukaldaritza osasuntsua, loreekin apaintzea eta sendabelarrak.

Baina proposamenak egiteko aukera ere badago. Banatu den orria udaletxeko postontzian utzi daiteke. Bestela, kultura@arbizu.eus e-postara idatzi. Udaletik gaztigatu dutenez, ez da derrigorrezkoa izena jartzea. Baina zerbait antolatuz gero, kontaktuak izatea komenigarria dela nabarmendu dute. Azken ohar bat egin dute: taldeak sortzeko 6 pertsona behar dira.



Joxepi Marquinez Arakama, ludotekan, jokoz inguratuta.

"Ikasturte berezia da Txantxari ludotekan"

JOXEPI MARQUINEZ ARAKAMA LUDOTEKARIA

Udal zerbitzuak aurten 25 urte bete ditu eta ikasturtean zehar nolabait ospatuko dute. Bitartean, irailean, sakoneko garbiketa eta konponketak egiten ari dira, prestatzeko

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Txantxari udal ludotekan irailean ez da haurrik izaten, baina urteko gainontzeko hilabeteetan 0 eta 12 urte arteko haurrez betetzen da Garbitoki eraikineko lehen solairua. Han dago 1993ko garagarriaren 12an musu zenetik. Urte bat geroago hasi zen lanean bertan Joxepi Marquinez Arakama ludotekaria. **Aurtengoa ikasturte berezia da?** Bai. Aurten 25 urte betetzen ditu ludotekak eta, berez, ikasturte hasiera hau berezia da.

Espazio handia hartzen du ludotekak. Solairu osoa?

Bai. Berrikuntza nahi dugu eta borrokatzen ari gara solairu osoa izateko. Ondoan epaitegia dago. Aldaketak egonen dira, suposatzen dut.

"BERRIKUNTZA NAHI DUGU ETA SOLAIRU OSOA IZATEKO BORROKATZEN ARI GARA"

Baina zer da ludoteka bat?

Espazio bat da. Eta bertan, bereziki, jolastu egiten da. Jolasak zer ekartzen du? Haur eta helduen garapenerako aukera bat. Bertan ikasi daiteke. Ongi pasatzeko aukera dago eta ludoteka harremanak egiteko aukera polita ere bada.

Harremanak egiteko. Altsasuko haur eta familia guztiei zabalik dago ludoteka, ezta?

Hori da. Hemen denak elkartzen gara. Nahi duenarendako irekita dago. 0 eta 12 urte bitarteko

haurrei eta familiei eskaintza handia egiten zaie ludotekan.

Haiendako udal zerbitzua da, ezta?

Hori da. Hasieran 4 eta 12 urte bitarteko haurrei eskaintzen zitzairen. Baina gizartearen aldaketarekin eta gurasoen eskaeragatik 0 eta 3 urteko umeendako saio bat zabaldu zen. Saio berezia da, familiari eskaintzen zaie. Saio horietan helduak ere sartzten dira. Eskaera gero eta handiagoa izan da, eta aurten hiru saio eskaintzen ditugu astean (astelehenetan 18:30etik 20:00etara eta asteazkenetan eta ostiraletan, 17:30etik 19:00etara).

Udal zerbitzua izanda, udalaren beste zerbitzuekin koordinatuta egonen da ludoteka, ezta?

Bai. Kultura eta Gazteria sailekin gauzak elkarrekin egiten ditugu. Beste zerbitzuekin harremanak bai edo bai izan behar ditugu.

25 urtetan ludotekan aldaketak izan dira?

Bai. Lehen aipatu dudan hori, bizi pertsonala eta lana bateragarri egiteko neurri gisa. Haurrak aldatu dira, baina ludotekan ez gara teknologiarekin sartu. Espazio honetan beste aukera batzuk ematen diegu: kooperazio-jolasak, eskulanak... Gaurko gizartearen haurrak teknologiarekin kokatuta daude. Berez ez gara horretan sartu. Ez du esan nahi agian etorkizunean, agian txokoren batean, jarriko ez dugunik. Baina, beno, dena den ongi funtzionatzen du. Etortzen dira eta ongi pasatzen dute. Agian beste aukera bat da, ez.

Ikasturtea lastailean hasi eta garagarrian despeditzen bada ere, ludotekaren jardunak ez du etenik.

Hori da. Ludotekak Aisiaz Blai programa kudeatzen du. Haurrek oporrak dituztenean eskaintzen da. Ludoteka ordutegi bereziarekin irekitzen da. Bateragarritasunagatik egiten da. Eguberrietan, Aste Santuan, garagarriko azken astean eta garilean eta agorrilean. Iraila izan ezik. Iraila ludoteka berritzeko, konpontzeko erabiltzen da. Lastailean zabalitzen da eta oso martxa azkarra hartzen du.

Erabiltzaileek, bai haurrek bai gurasoei, nola hartzen dute ludoteka?

Hona etortzen direnak gustura daude eta jarraitzen dute. Nik gurasoei beti esaten diet hona etorri behar direla eta ongi pasa behar dutela. Aisialdia da eta aisialdian guk aukeratzen dugu egin nahi duguna. Berez, etortzen

dena eta jarraitzen duena, ongi dago. Bestela ez litzateke bueltatuko.

Ikasturtea bertan dago. Nolako eskaintza duzue aurten?

Adin desberdinendako hainbat aukera dauzkagu astelehenetik ostiralera. 4 eta 7 urte bitarteko taldea astelehenetan, asteartetan eta ostegunetan 17:00etatik 18:30era izanen dute aukera. Asteazkenetan, berriz, 16:00etatik 17:30era. (Astean behin joanda, 25,5 euro, bitan 48 eta hiritan 61). 8 eta 12 urte bitartekoendako asteartean eta ostegunean 18:30etik 20:00etara eta ostiraletan 16:00etatik 17:30era (5 euroko kuota bakarra). Eta gero familiendako saioak daude, heldu batek lagundutako 0 eta 3 urteko haurrendako, lehen aipatu ditugunak. Aurten aldaketak batez ere asteazken eta ostiraletan izan dira, 0-3 saio horiek egokituz. Lehen 17:00etan zen eta ordu horretan jende gutxiago etortzen zela nabari zen. Aurten aldatu dugu, ea zer erantzun dagoen (doako sarrera).

Izen ematea zabalik dago?


Atzo zabaldu zen, eta 28ra arte eman daiteke izena. 012 doako telefonora hots egin behar da, izena eman eta bertan ordaintzen da. Familia bereko bi partaide edo gehiago baldin badaude, bakoitzeko 3 euroko deskontua dute.

Eta zenbatek ematen dute izena?

Urteak daude. Aurreko ikasturtean jende asko pasa zen, izen ematea ia 130 izan zen. Eta gero 0 eta 3 urte arteko saioetako sarrera librea da eta saioak bete-beterik egoten dira. Astelehenekoak batez ere.

Bakarren batek zalantzarik badu?

948 467 471 telefono zenbakia edo ludoteka@altsasu.net e-posta helbidea. +www.guaixe.eus



Euskaltzaindia Burundan bisitan izanen da gaur

Hizkuntzaren akademiak Nafarroako ikastolen festarekin bat egin du eta hileroko bilera Olatzagutian egingen du

BURUNDA



Urtero moduan Euskaltzaindiak Nafarroa Oinez festarekin bat egin du eta, horregatik, hilabetero egiten duen bilkura Burundan egingen du gaur. Baina horren aurretik euskaltzainek ikastola antolatzailerak bertatik bertara ezagutzeko aukera izanen dute. Euskaltzaindiako kideak Iñigo Aritza ikastolan 09:30ean izanen dira. Arduradunekin hizketatu eta ikastetxea bisitatu ondoren, euskaltzainek Olatzagutira joko dute. Udaletxean lan-saioa izanen dute. Behin hura despedituta, Urdiainera bazkaltzera joanen dira. Mahaitik jaso eta Urdiaingo errota bertatik bertara ezagutzeko aukera izanen dute akademikoek. Eta han despedituko dute Burundako egonaldia.

Euskaltzaindia eta Sakana

Euskaltzaindiako hainbat kiderendako Olatzagutia ez da bate-re arrotza izanen, hainbat urtez Onomastika batzordea urtetan bertako kultur etxean elkartu izan baitzen, bi hilabete behin. Bestetik, Guaixe astekarian jasotakoaren arabera, Euskaltzaindiak ibarrean egindako aurreneko ekitaldia 1923ko maiatzaren 21ean izan zen, Euskaltzaindiak Etxarri Aranatzan Euskal Jaia antolatu zueneko.

1983ko azaroaren 9an Blas Alegria idazlea omentzeko ekitaldia egin zuen Lakuntzan. Nafarroa Oinez dela eta, 2005eko irailaren 23an Altsasun eta 2009ko irailaren 25ean Etxarri Aranatzan bildu zen.

Gaur egun bi sakandar euskaltzain urgazleak dira: Jose Luis Erdozia Mauleon eta Castillo Suarez Garcia.



Ordekariak Uxue Barkos eta Maria Solanarekin. NAFAR GOBERNUA

Nafarroa Oinezkoak gobernukoekin

Lastailaren 21ean ospatuko da Nafarroako ikastolen festa Altsasun. Nafarroa Oinezko antolatzaileak Uxue Barkos presidentearekin eta Maria Solana hezkuntza kontseilariarekin elkartu ziren asteartean. Ikastolako zuzendari Ibai Iriartek, ikastolako presidente Eneida Carreñok, Nafarroako Ikastolen Federazioko zuzendari Josu Reparazek eta presidente Mikel Asiainek ospakizunari buruzko argibideak eman zieten Barkosi eta Solanari. Iñigo Aritza ikastolak antolatzen duen hirugarren Nafarroa Oineza da aurtengoa. Ateratzen den dirua eraikina egokitzeko eta hezkuntza eredia finkatzeko delatza aldu zieten Nafarroako Gobernuo ordezkariak. Aldi berean, ospakizunean parte hartzeko gonbidapena egin zieten bai Barkosi baita Solanari ere.

Pentsio duinen manifestazioa prestatzen

Lastailaren 1ean, astelehenarekin, pentsio duinen aldeko manifestazioak egingen dira hiriburuetan. Iruñeko manifestaziora joateko autobusa antolatu dute eta, Altsasun, ohiko tokietan eman daiteke izena

ALFREDO

Adinekoen eguna lastailaren 1a da. Eta egun hori aukeratu dute pentsio duinen aldeko plataformek euren aldarrikapenak ozen zabaltzeko. Hiriburuetan manifestazioak egingen dituzte, baita Iruñean ere. Nafarroako Pentsionistak Martxan, Otsailak 22ko Plataformak eta Sasoiak bat egin dute mobilizazioarekin eta Iruñean egingen den manifestaziora joateko autobusa antolatu dute. Izena ohiko tokietan eman daiteke.

Pentsio duinen aldeko mugimendua "mobilizazio fase berria hastera" doala iragarri du. Kaleak betez estatuko eta erkidegoetako gobernuari eskaera zuzena egingen diete: aurrekontuen bidez 1.080 euroko gutxieneko pentsioa bermatzeko dirua bideratzea. Pentsio publikoen aldeko aldarrikapena egin eta "behin betirako bukatu nahi dugu pentsiodunak zigortzen duen pobrezia egoerarekin; bereziki emakumeen egoerarekin". Uxue Barkosi ere euren eskaerak zuzenean jakinarazi nahi dizkiote.

Gazteak batera

Festak zirela eta, pentsio duinen aldeko mugimenduak astelehen eguerdian egin zuen kontzentrazioa plazan. Altsasuko gazteen



Altsasuko gazteen bi ordezkari bat egin zuten pentsiodunekin.

bi ordezkari borrokarekin bat egiten dutela adierazi nahi izan zuten. Izan ere, mugimenduaren asmoetako bat beti izan da "pentsio duinak defendatzen duen edonorekin elkartzea gure indarrak". Erakundeei "pentsioak bermatzeko egin beharrekoa egiteko eskatu zuten". Pentsioak Nafarroan bertan kudeatzea eskatu zuten. Eta horrekin batera, lan erreforma indargabetzea eta gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea exijitu zuten. Baita bizitza-garestitzearen araberako pentsioen birbalorizazio

automatikoa ere. Gaztigatu zuten, etorkizuneko pentsioak % 30 txikiagoak izanen dira. Eta gogorarazi zuten, "pentsioak ez dituzte gobernuak ordaintzen, gure soldataren zati dira, gure kotizazioen ondorio dira".

Datuak

Adinduak gizartearen % 25 dira, baina aberastasunaren % 12 jasotzen dute.

Argindar hornidura hobetzeko lanak egingen dituzte

Geltoki auzoko azpiestazioa eta Lastadin bukatzen den argindar linea lurpetik lotu nahi dira

ALTSASU

Altsasu eta Sakana aldeko energia elektrikoaren horniduraren kalitatea eta ahalmena hobetzeko asmoz Iberdrola Distribucion Electrica enpresak proiektua aurkeztu du. Altsasuko Geltoki

auzoan dagoen transformazio azpiestazioa eta 30 KV-eko Altsasu-Etxarri 1 eta 2 zirkuitu bikoitzeko aireko argindar linearekin lotu nahi du Lastadi dermionan. Horretarako, enpresak lurpeko zirkuitu bikoitzeko 30

KV-eko argindar linea egin nahi du. 3 km inguruko luzera izanen du. Lanek 1.911.513,66 euroko aurrekontua dute. Asmoa jendaurrean 10era arte izan zen.

Lurpeko linea berriak Geltoki kaletik Altsania ibaiaren artetik hegoaldera joko luke, eta autobia azpitik Idiazazpira joko eta trenbideetako zubien azpitik hegoalderantz segi, ibaiaren gainetik pasa eta kamioien aparkalekutik Ubagua dermiora joko du, autobia azpitik pasa Lastadiraino joateko.



Sakanako haurrek ez dute ETB3 ikusteko aukerarik izango. @EITB

Aldaketak telebistako urrutiko agintean, baina ETB3rik ez

Nafar Telebistak hutsik utzitako kanala ETB2ri eman dio Gobernuak. Haurrendako ETB3 ez da Sakanan ikusten

SAKAN

Makina bat sakandarrek telebistako urrutiko agintean aldaketak egin zituzten hilaren aurreneko astean. Jakinik Euskal Telebistaren 2. katea Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) bidez Nafarroa guztian 26. kanalean sintonizatu zitekeela, hala egin zuten makina bat herritarrek. Eta gero urrutiko agintean ere beste zenbaki bat eman zioten ETB2ri, eskura izateko. Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Ana Ollok jakinarazi zuenez, "Nafarroako milaka herritarren eskaera" kontuan izanik hartu zuen gobernuak ETB2ren seinalea zabaltzeko erabakia.

Herritarrek ere hainbatetan eskatu dute euskara ardatz eta nagusiki haurrendako programazioa eskaintzen duen ETB3 katea Nafarroa guztian ikustea.

2016az geroztik Lizarrako, Zangozako, Tafallako eta Tuterako tokiko LTD bidez ikusgai dago. Irailaren 6az geroztik Iruñerrian ere ikus daiteke. Beraz, Nafarroako etxe gehienetan marrazki bizidunak euskaraz ikusteko aukera dago.

Baina Sakanan ETB3 telebista ikusi gabe segitzen dugu. ETB3ren Aldeko Plataformak horixe salatu du. Sakandar batzuek ez dute jakinen haurrei eta euskaraz eskainitako kate bat dagoenik ere. Gabezia horrek haurren hizkuntza ohituretan du eragina, euskarazko ereduak beharrezko erdarazkoak erabiltzen dituztelako ahoan.

Gobernuak aldaketa horiek egin ditu Nafar Telebistako kanal autonomikoa hutsik geratzean eta Abian Komunikazio SLri lizentzia baliogabetzeko espediente onartuta, 2016ko lastaletik emankizunik ez egiteagatik.

Gizarte etxea Lizarragarendako

Lizarragan zerbitzurik, dendarik eta tabernarik ez dago eta, herritarrek horren premia azaldu zuten kontzejuak egindako inkesta batean. Eskaera hori Aste Santurako betea izanen da medikuarena zen etxeko behe solairuan gizarte etxea egingen baita

LIZARRAGA

Lizarragako Kontzejuak Ergoienako Udalarik medikuarena zen etxean gizarte etxea egiteko baimena eskatu dio eta eskaera jendaurrean dago 15 egunez. Kontzejuko buru Xabier Senar Veigak esan digunez, "herritarrei zerbitzua eta herriari bizia eman nahi diogu horrela".

Lizarragako Kontzejuak medikuen etxearekin zer egin aztertzeke 2.000 euro bideratu zituen joan den urtean. Lizarratarrez osatutako batzorde bat ere sortu da eta hartan, kontzejuarekin batera, zer egin daitekeen eta nola aztertzen aritu dira. "Erabakitze prozesu partehartzailea izatea nahi izan dugu", azaldu digu Senarrek.

Lanak

Lizarragako gizarte etxeak medikuaren etxea zenaren beheko solairu guztia hartuko du. Proiektua eginda, kontzejua eraikuntza enprekin harremanetan jarriko da eskaintzak jasotzeko.

Senarrek jakinarazi digunez, lan guztiek 100.000 euro inguruko kostua izanen dute. Haietatik, 90.000 inguru lanak egiteko lirake eta gainontzeko 10.000 euroak altzariak eta bestelakoak erosteko. Kontzeju buruak jakinarazi digunez, Europako Lan-



Mediku etxea zen eraikinean egingen dute gizarte etxea. ARTXIBOA

da Garapenerako Programatik 50.000 euroko diru-laguntza jaso dute. Senarrek gaineratu duenez, Lizarragako Kontzejuaren finantza egoera ona da eta halako inbertsioetan sartzeko aukera baduela.

Medikuaren etxea zenak beheko solairua, ganbara eta goiko ganbara ditu. Hutsik geldituko den ganbaraz galdetuta, Senarrek esan digu landetxe bat, aterpe bat, etxebizitza bat edo beste zerbaite hartu dezakeela. Ideia faltan ez daude baina momentuz ez dute erabaki zer egingen duten.

Lehenik beheko solairuan zentratuko dira.

Lanen epeez galdetuta, Senarrek jakinarazi digu asmoa dutela kiusugileak lastailaren erdialdera lanean hastea eta haien lana ilbeltzaren erdialderako despiditzea. Ondoren guztia jantzi eta garbitu beharko litzaiteke. Horregatik, kontzeju buruak gizarte etxea Aste Santurako martxan izanen dela espero du.

Bestalde, gonbidapena zabaldu du Senarrek: "gazteek herrian bizi nahi badute, Lizarragan horretarako aukera badute".

Bernoako galtzada azaleratzen segitzen dute

Etorkizunean galtzadaren ibilbidearen berri emanen duten informazio panelak herrietan jarri nahi dituzte

BAKAIKU / ITURMENDI

De Amicitia gobernu kanpoko erakundeak Bernoako galtzada auzolandegia antolatu du aurtan ere. Bakaiku eta Iturmendi artean aritu dira Japoniatik, Turkiatik, Frantziatik,

Alemaniatik, Errusiatik, Italiatik, Greziatik, Espainiatik, Mexikotik eta Amerikako Estatu Batuetatik etorritako boluntarioak. 14 kideko bi talde etorri ziren Burundako galtzadan lan egitera: adingabeena (garilaren

28tik agorrrilaren 9ra) eta adinez nagusien taldea (agorrrilaren 11tik 23ra). Iturmendiko parroikia-etxean hartu zuten ostatu. Nicolas Arbizu Gabirondo lanen koordinatzaile izan zen. Atzerriko gazteekin batera herrietako boluntarioak izan ziren, bai gazteak bai adinez nagusiak ere.

Bakaikuko beheko basoan 50 metroan azaleratu zuten galtzada. Galtzada toki batean nondik zihoan ere opatu zuten. Baina baso lanak egiten ari zi-



Galtzadan lanean. ARTXIBOA

renez, lanak Iturmendin zentratu ziren. Arbizuk esan digunez, galtzada desagertuta zegoen zati batzuetan harriekin haren nolabaiteko irudikapen bat egin dute. Beste zati batzuetan galtzada gainetik lurra kendu dute ere Mandubita aldean aritu ziren lanean. Ibarbeltzen zeudela, Dospelos errekaldean, erregezaleek Dos Pelos koronela (Sebastian Fernandez de Lezeta) eta bere 126 militarrek non erail zituzten opatzeko saiakerak egin zituzten, momentuz, alferrik.

Zahartze aktiboa sustatzeko egitaraua

Modu aktiboan eta osasungarrian zahartzeko bideak azalduko dira heldu den hilabeterako prest dagoen programazioan: osasunez zahartzeari buruzko lau saioko tailerra eta dokumental baten emanaldia eta ondorengo zine-foruma

SAKANA

Sakanako Plan Estrategikoaren helburu nagusietako bat ibarra-
ren espezializazioa da eta zehaz-
tutako aukeren artean zahartze
aktiboa dago. Izan ere, gero eta
zaharragoa den gizarte batean
bizi gara. XXI. mendean pertso-
nen ehuneko gero eta handiago
bat gero eta gehiago biziko da.
Pertsona horiek osasun hobea-
rekin eta bizi kalitate handia-
goreakin bizitzea pertsonen,
gizartearen eta osasun arloaren
erronka garrantzitsua da.

Egun adineko pertsona asko
aktibo eta menpekotasunik gabe
mantentzen dira haien azken
egunera arte. Sakanan bizitza
eredu aktibo eta osasuntsu hori
zabaltzea beharrezko helburue-
tako bat da. Pertsonak ahalik
eta denbora gehien, ahalik eta
baldintza onenetan eta ahalik
eta zerbitzu eta erraztasun gehie-
nak izanda bizitzea ez da erraza
Sakanan. Zailtasunetako bat da
jendea herri askotan bizitzea.

Bertan, Zahartze Aktiborako Estrategia

Horren guztiaren berri badute
ibarreko Oinarrizko Gizarte
Zerbitzuen hiru mankomunita-
teetan, Sakanako Garapen Agen-
tzian eta arlo hori ezagutu edo
horretan lan egiten duten era-
gileek. Horiek guztiek, Nafa-
rroako Gobernu Osasun eta
Gizarte Eskubideen Departa-
mentuaren babesaz, lanketa
handia egin dute. Ondorioak
izena du: Bertan, Sakanako
Zahartze Aktiborearen Estrategia.

Haren barruan, Nafarroako
Osasun Publikoaren eta Lan
Osasunaren Institutuaren eta
Sakanako osasun etxeen eskutik,
lastailaren zahartze aktiboari
buruzko bi lanketa egingen dira
ibarrean. Prestatutako progra-
mazio horren helburua da sa-
kandarrek zahartzeaz informa-
zio berria jasotzea, baliabideak
eta gaitasunak garatzea eta



Etxarri Aranazko osasun etxea.

BERTAN, SAKANAKO ZAHARTZE AKTIBORAKO ESTRATEGIAREN BARRUAN DAGO

ahalmen funtzional ahalik eta
handienarekin zahartzeko. Hala,
adinduak pertsona aktiboak,
autonomoak eta burujabeak
izanik, ahalik eta luzaroen eta
ahalik eta bizi-kalitate handie-
narekin bizitzeko.

Programazioa

Osasunez zahartzea tailerra

60 urtetik gorako sakandarrei zuzendutako tailerra da. Lastailaren 4an, 8an, 11n eta 15ean (ostegunak eta astelehenak), 17:00etatik 19:00etara, Altsasuko jubilatutako elkartearen izan da, doan. 4 gai landuko dira: zahartze prozesua zertan datzan eta zer aldaketa dakartzan; gorputzaren zaintzan eragiten duten faktoreak, gure burua zaintzeko erak eta gorputzaren zainketa; gure gogoa eta gure emozioak zaintzea saioan nork bere burua zaintzeko irtenbideak eta neurri horiek egiaz hartzeko gaitasunak garatzea eta, azkenik, gure harremanak eta ingurua zaintzeaz pentsatzea eta horiek hobetzeko zein aukera dauden aztertzea eta norberaren plana egitea.

"Nora goaz?" dokumentalaren emanaldia eta eztabaida

Sakanako gazte, heldu eta adineko guztiei zuzendutako zine-foruma. Lastailaren 18an, 17:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean, doan.

Izena emateko

848 423 442 telefono zenbakira hots egin edota idatzi escuelademayores@navarra.es helbidera.



Espetxetik irtetzerakoan senitartekoak eta lagunak zituen zain etxarriarrak. UTZITAKOA

Hodei Ijurko Iroz, zigorra beteta, aske gelditu zen atzo

Pontevedrako espetxetik atera berrikan senide eta lagun harrera izan zuen. Arratsaldean herrian

ETXARRI ARANATZ

10 urte eta erdi preso egin ondoren A Lamako (Pontevedra) espetxea atzo goizean utzi zuen Hodei Ijurko Irozek. Gaua bidaian egin zuten, senideen eta lagun harrera izan zuen zegoela etxajauak lehertu ziren atzo Etxarri Aranatzen, preso bat gutxiago dagoela iragarritz. Handik bueltako 730 km-ak egin eta "Itzaletik argira, Hodei etxien!" lelopean egitaraua presatu zuten atzorako: 19:00etan musika eta auzatea izanen ziren plazan, 20:00etan ongi etorri ekitaldia iragarri zuten eta 20:30ean herri-poteoa izanen zen.

Foruzaingoaren furgoneta bati bi koktel molotov botatzeagatik eta bi agente zauritzea leporatuta 16 urteko espetxe zigorra jarri zion Espainiako Auzitegi Nazionalak 2009an. Etxarri Aranazko Udalak eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) orduan salatu zuten, "zigorra neurrigabea" zen. Zigorra salatzeko manifestazioa egin zen Etxarri Aranatzen bi erakundeek deituta. AAMk orduan azaldu zuenez, "argi dago Ijurkori zigoredugarri bat jarri nahi izan zaiola hasieratik, eta orain zigorra jaitsi dioten arren, izugarria izaten jarraitzen du". Zigorren oinarrian "arrazoi politikoak" daudela nabarmendu zuen AAMk.

Ijurkok espetxe zigorraren zatirik handiena isolamendu moduluetan eman du. Hau da, 21 ordu ziegan eta patiora ate-

ratzen zenean gehienez beste preso batekin egon da. Ziegan arropa eta bestelako gauzak izateko murrizketak izan ditu, gainera, denbora luzez. Bestalde, Ijurko bisitatu ondoren Galiziatik etxera bueltan zetozen hiru pertsonen auto istripua izan zuten 2010ean.

Ijurkoren espetxeratzeak alderdien erreakzioak eragin ditu. Alderdi Popularrak Etxarri Aranatzen duen zinegotziak, Juan Antonio Extremerak atzoko "omenaldiaren" kontra egin zuen eta terrorismoaren biktimei babesa azaldu zien. UPNk, berriz, Nafarroako Gobernuaren kontra jo zuen. "omenaldia saihesteko ezer ez egiteagatik". Erregionalisten iritziz foru gobernua "hori da Barkosek ordaintzen duen bidesaria terroristak babestu eta ETaren terrorismoa kondenatu ez dutenekin gobernatzeagatik".

Beste presoak

Unai Parot (Huelvako Puerto III 1.050 km); Asier Carrera Arenzana (Dueñas, Palentzia, 300 km); Luis Mariñelarena (Curtis, A Coruña, 650 km); Juan Ramon Karasatorre (Castello II, 590 km); Juan Kruz Maiza (Lannemezan, 330 km) eta Oihan Barandalla (Lannemezan, 330 km).



#emanlikeeuskarari

Matrikula zaitez euskaltegian

2018/2019 IKASTURTEA

DIRU-LAGUNTZAK MATRIKULATZEKO

948 012 012

www.euskaraikasi.nafarroa.eus

BIDEOA



ANTOLATZAILEAK

Euskarabidea eta toki entitateak:

Aezkoa, Aoiz / Agoitz, Ansoáin / Antsoain, Aranguren, Auritz / Burguete, Barañain, Basaburua, Berrioplano / Berriobeiti, Berriozar, Burlada / Burlata, Cendea de Olza / Oltza Zendea, Erro, Estella-Lizarrá, Esteribar, Etxauri, Galar, Huarte / Uharte, Imotz, Lizoain-Arriosgoiti, Luzaide / Valcarlos, Mancomunidad de Irantzu / Irantzuko Mankomunitatea Mancomunidad de Valdizarbe / Izarbeibarko Mankomunitatea, Odieta, Orkoien, Pamplona / Iruña, Puente la Reina / Gares, Sakanako Mankomunitatea / Mancomunidad de Sakana, Salazar / Zaraitzu, Tafalla, Ultzama, Valle de Arce / Artzibar, Valle de Egüés / Eguesibar, Valle de Roncal / Erronkaribar, Villava / Atarrabia, Zizur Mayor / Zizur Nagusia.

LAGUNTZAILEAK

Nafarroako euskaltegiak



NAFARROAKO HIZKUNTZA
ESKOLA OFIZIALAK
ESCUELAS OFICIALES DE
IDIOMAS DE NAVARRA

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



euskarabidea

**BADATOR
GIDA!**



Sakanako Gida Komertzialean

agertu nahi baduzu urriaren 31ra arte duzu aukera.

948 564 275 | publi@guaixe.eus | publizitatea@guaixe.eus

Katarainen bi km bertikalak eta bi podiumak

MENDI LASTERKETAK

Intza-Ttutturen hirugarrena izan zen eta Araia-Aratzen bigarrena

Beñat Katarain korrikalari lakuntzarra igandeko Uharte Arakil-Beriain Km bertikalera prestaketa egiten ari dela esan daiteke. Izan ere, asteburuan bi km bertikaletan aritu da Euskal Selektzioa kidea eta bietan podiumera igo da. Kataraini hobe doazkio proba luzeak km bertikalak baino, baina distantzia hauetan ere ongi moldatzen dela erakutsi du lakuntzarrek.

Katarain hirugarrena eta San Martin zazpigarrena

Larunbatean Intza-Ttutturen km bertikala jokatu zen Intzan. Bertako estatutik aterata, Ttutturen gainera igo behar izan zuten proban parte hartu zuten 96 korrikalariak: 3,8 kilometrotan 963 metroko desnibel positiboa gainditu behar izan zuten. Joseba Diaz (37:15) izan zen azkarrena; 1:02 minutu ateratzen zion Asier Larruzeari (38:17). Beñat Katarain lakuntzarra izan zen hirugarrena helmugan, 1:28ra (38:43). Joxeja Maiza etxarriarra 22.a sailkatu zen (44:04) eta Mikel Iriarte 60.a (54:41). Eta emakumezkoetan Maricruz Angonek irabazi zuen (49:02). Zazpigarrena Erkuden San Martin etxarriarra izan zen (57:00).

Aratzen bigarrena

Hurrengo egunean Araia-Aratz Kilometro Bertikala antolatzen Alzania mendi klubak. Araitatik aterata Aratz igotzea zen erronka, 5 km-ko proba, malda ikusgarriekin. Mikel Beunza (37:57) eta Maria Zorroza (44:48) igo ziren oholtzako gorenera, proba ikusgarria egin eta gero. Bigarrena, bezperan Ttutturen hirugarrena sailkatu zen Beñat Katarain lakuntzarra izan zen (38:16). Alatz Agirre arbizuarra 13.a sailkatu zen (44:16), Ioseba Iza arbizuarra 30.a (47:57) eta Asier Leiza 37.a (51:55).



Amaia Razkin, aurreko urteko edizioan Beriaingo gainera iristen. ASIER ARLEGI

Mendi korrikalariak Beriainera begira

MENDI LASTERKETAK X. Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala igandean jokatu dute 250 korrikalari, 10:00etatik aurrera. Eguraldi ona iragarri dute eta jendetza espero da Beriaingo malda gogorretan, korrikalariak animatzeko

Igandean Beriain mendizaleen eta mendi korrikalarien bilgunea izango da. Urtetik urtera erakargarritasun gehiago duen Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala jokatu da etzi, eta puntako mendi korrikalariak eman dute izena, Uharteko proba aldi berean Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa –indibiduala eta taldeka– eta Euskal Herriko Bertikalen Txapelketarako baliagarria izango delako.

Antolakuntzak 220 pertsonarendako muga zuen, baina eskariei erantzunez muga hori zabaldu eta 250 korrikalari izango dira etzi goizeko 10:00etan Uharte Arakildik Beriainera abiatuko direnak. Eta haien ahaleginak txalotzera eta korri-

kalariei beharrezko animoa ematera jendetza bilduko da Beriaingo txoko, zirrikitu eta maldetan, azken aldapa gogorretan bereziki. Giroa ikusgarria izaten da eta aurten ere horrela izatea espero du antolakuntzak, Aralar Mendi elkarteko mendi klubak. Aralar Mendik Uharte Arakilgo Udalaren eta Nafarroako eta Euskal Herriko mendi federazioen laguntza izan du probaren antolaketan, eta hainbat babesleren bultzada.

5 km aldapatsu eta gogor

Dortsalen banaketa herriko plazan egingo da, goizeko 8:00etatik aurrera. Helmugara igotzeko arroparen bilketa, berriz, 9:00ak arte egingen da. Goizeko 10:00etan

ekingo diote korrikalariak proba. Guztiak elkarrekin ateratzen dira.

Gonzalezen 200 km-ak

Asteburuan Bocineros-Deiadar Xtrem mendi lasterketa jokatu zen Bizkaian, hiru distantziatan: 200 km, 105 km eta 45 km. 200 kilometroko proban 85 mendi korrikalari hartu zuten irteera eta 59k besterik ez zuten amaitu. Juan Romano izan zen azkarrena, ia 32 orduren ostean (31:50:34). Iñaki Gonzalez altsasuarrak 45 ordu pasa behar izan zituen proba ultra gogor hau despeditzeko. 23. postuan sartu zen (45:13:33).

ko dira Uharte Arakilgo frontoitik (471 m) eta Beriaingo San Donato ermita izango dute helburu (1494 m). Proba motza da, baina intentsitate handikoa: 5 km-ko lasterketa, baina 1.023 metroko desnibelarekin eta sekulako etapa eta maldekin, San Donato baselizara iristeko azken maldak, bereziki. Bidean zaleen berotasuna eskertuko dute korrikalariak. Eguraldi ona iragarri dutenez, ikusle asko egongo direla pentsatzekoa da.

250 korrikalari, puntakoak

Aurreko urtean Aitor Osak sekulako erakustaldia egin zuen eta bere laugarren Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala irabazi zuen (40:56), 200 korrikalari pasatxoren artean. Emakumezkoetan Virginia Perezek ez zuen areriorik izan (49:33) eta errekorra gainditzeko 6 segundo eskasera geratu zen (Maria Zorroza, 49:27). Sakandarren artean Beñat Katarain lakuntzarra izan zen azkarrena (46:30), helmugan seigarrena, eta emakumezkoetan Erkuden San Martin bederatzigarrena sailkatu zen (1:01:25). Aurten puntako korrikalariak espero dira eta ikusmina handia da.

Errekorra: Aitor Osa (39:54) eta Maria Zorroza (49:27)

Bukaeran, Uharte Arakilera jaitsita, auzate bikaina izango dute zain korrikalariak indarrak berreskuratzeko; opari poltsa jasoko dute oroigarri. Aurten 10. edizioa denez, esfortzu berezia egin du antolakuntzak eta likidoak eta beste eramateko txaleko antzeko bat jasoko dute korrikalariak, 2-3 litroko edukiera duena.

Egurdiko 13:15 aldera hasiko da sari ematea. Emakumeendako eta gizonezkoendako sariak dagokienez, txapeldunek garaikurrak, txapela eta 300 euro jasoko dituzte, bigarrenak garaikurra eta 150 euro; eta hirugarrenak garaikurra eta 100 euro. Beterano eta junior txapelduendako garaikurra izanen da. Bestalde, errekorra onduz gero, 300 euroko saria dago jokoan. Errekorra 2015ean ezarri zuen Aitor Osa (39:54) eta emakumezkoen errekorra 2016an hobetu zuen Maria Zorrozak (49:27).

Horretaz gain, Nafarroako Km Bertikalen Txapelketako sariak banatuko dira, indibidualak eta taldekakoak.



Unai Villalobos, Iruñea-Gares maratoiko txapeldun juniorra, saria jasotzen. SAKANA PATIN

Lapuenteren eta Villalobosen podiumak

IRRISTAKETA Iratxe Lapuente Espainiako Pista Txapelketako kimuen 3.000 puntuko proban hirugarrena sailkatu zen eta Altsasuko kimuen lasterketa irabazi zuen. Eta Unai Villalobos Iruñea-Gares maratoian junior mailako txapelduna izan zen

Sakanako irristalariak sasoi bikainean daude eta azken asteetan jokaturako txapelketetik emaitza bikainak ekarri dituzte.

Hasteko, asteburu honetan Espainiako Pista Txapelketak jokatu ziren Zaragozan eta emakumezkoen kimuen mailatik etorri zen albiste ona, Sakana Patin taldeko Iratxe Lapuente ziordiarra hirugarrena sailkatu baitzen 3.000 puntuko proban. Lagunak taldean dabilen Anne Lapuente jubenilen mailan aritu zen, gustura. Aldiz, Sakana Patin taldeko Yerai Goikoetxea infantila eta Oier Ormazabal kimua erdizka aritu ziren, osasun arazoak tarteko.

Gogoratu behar dugu irailaren 8an II. Sakana Trofeoa jokatu zela Altsasun, Sakana Patinek antolatuta. Talde honetako Jon Urkizar 3.a sailkatu zen benjaminen mailan eta Iratxe Lapuente ziordiarra, aldiz, kimuen mailako lasterketa irabazi zuen.

Unai Villalobos txapeldun Garesen

Hurrengo egunean, irailaren 9an, Iruñea-Gares irristaketa maratoia jokatu zen, proba gogor bezain ikusgarria. 400 irristalari baino gehiago aritu ziren eta proba honetan ere ikusgarri aritu ziren gureak. Lagunak taldean dabilen Unai Villalobos Hernaz altsasuarra sekulako

proba egin zuen eta ordu eta ia 20 minutu behar izan zituen Iruñea eta Gasteiz lotzeko (1:19:55). Sailkapen orokorrean 24.a izan zen altsasuarra, lehen sakandarra eta junior mailako txapelduna. Garesko maratoian aritzen zen lehen aldiz zen eta debut ikusgarria egin zuen Villalobosek.

Bestalde, Sakana Patin taldeko Oskar Zamarron 47.a sailkatu zen sailkapen orokorrean (1:24:23), Amaia taldeko Unai Baztan 56.a (1:29:34), Berrito Ere taldeko Kevin Marques 74.a (1:32:29), San Juan taldeko Sergio Marques 77.a (1:32:59) eta Lagunak taldeko Ana Rita Correia 2017.a (1:59:15).



Bizikleta Egunean izena eman!

TXIRRINDULARITZA Sakanako Mankomunitateak irailaren 30erako antolatu du XXV. Sakanako Bizikleta Eguna. Proba ez lehiakorra Irurtzundik abiatuko da eta Altsasun despidituko da (41 km). Dohainik da, baina azpiegitura guztia prestatzeko aurretik eman behar da izena Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus).

Arabako Itzulia Aitor Alberdirendako

TXIRRINDULARITZA Bere taldekide Martzel Etxeberriak irabazi zuen igandean Dulantzin jokaturako azken etapa

Igandean kadeteen mailako Arabako Itzuliko hirugarren eta azken etapa jokatu zen Dulantzin, 124 kilometroko X. Alegria-Dulantzi Udala Saria. Tropela batera iritsi zen helmugara eta esprintean Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Martzel Etxeberria gailendu zen. Bere taldekide Aitor Alberdi, Arabako Itzuliko liderra, hirugarrena sartu zen eta berak irabazi zuen Arabako Itzulia.

Sailkapen orokorrean, Aitor Alberdik 23 segundo atera zizkion Luyando-Ganzedo taldeko Mikel

Berazari eta 30 segundo El Proex taldeko Arkaitz Duqueri. Martzel Etxeberria bere taldekidea 8.a sailkatu zen eta Quesos Albenizko Unai Aznar eta Hugo Aznar 9.a eta 10.a. Mikel Lizasoain (I.I.) 14.a sailkatu zen.

Kategoria txikien denboraldia Altsasun bukatu zen

Kategoria txikikoen 2018 denboraldia igandean bukatu zen, Altsasun jokaturako ginkana eta txirrindularitza probekin. Bikain aritu ziren Burunda eta Aralar klubekoak.

Garikoitz Flores Gubbioko FIA Hill Climb Mastersean ariko da

AUTOMOBILISMOA Espainiako selekzioak Flores, Iraola, Villa eta Perello hautatu ditu Italiako proban aritzeko

Garikoitz Flores pilotu lakuntzarrak denboraldi bikaina egin du eta egindako lanaren fruituak jasotzen ari da. Espainiako Mendi Igoeren 2. kategoriako txapelduna da Flores, denboraldia bukatzeko proba baten faltan.

Proba hori irailaren azkeneko asteburuan jokatu da, De La Santa santutegiko igoera (Murtzia). Bertan ariko da Flores, baina lakuntzarrak beste erronka garrantzitsu bat dauka: urriaren 4a eta 10aren artean joka-

tuko den Italiako Gubbioko FIA Hill Climb Mastersa.

Izan ere, Espainia ordezkatzeko lau pilotari aukeratu ditu Espainiako Automobilismo Federazioak, eta tartean dago Garikoitz Flores. Lakuntzarrak Joseba Iraola, Javier Villa eta Kike Perello izango ditu taldekide Italiako proba ezagunean. Automobilismoaren ibilbidean aurrerapauso galanta da hau, Italian jokatu den Gubbioko FIA Hill Climb Mastersa puntuko proba baita.

Konfirmatuta: Etxeberria eta Erbiti Mundialetara

TXIRRINDULARITZA Bata juniorren linea proban eta bestea eliteen taldekako erlojupekoan ariko dira

Irailaren 23tik 30era Munduko Txirrindularitza Txapelketak jokatu dira Innsbrucken (Austria). Aurreko astean Espainiako selekzioarekin arituko diren aurrehautatuak zerrenden berri eman zen, eta aste honetan, aldiz, behin betikoen zerrendak. Zerrenda horietan bi sakandar daude: juniorren mailan Aralar klubeko Intersport Irabia talde sakandarreko Josu Etxeberria txirrindulari iturmendiarrak eta elite mailan Movistar Team taldeko Hiriberriko Imanol Erbiti txirrindularia.

Imanol Erbiti taldekako erlojupekoan ariko da igandean Movistar Team bere taldearekin, eta egiten duen lanaren arabera, Javier Minguez selekzionatzaileak banakako erlojupekoan hautatua izateko aukera izanen du Hiriberrikoak.

Junior mailan, eta Francisco Javier Cerezo selekzionatzaileak hautatuta, Josu Etxeberria iturmendiarrak lineako proban lehiatuko da, Carlos Rodriguez, Ivan Cobo, Jon Barrenetxea eta Pelayo Sanchezekin batera, irailaren 27an.

Ailetz Lasa bosgarrena Tafallan Kadeteen eta juniorren denboraldia ez da oraindik bukatu. Larunbatean kadeteen eta juniorren XIII. Suministros Urva Trofeoa jokatu zen Tafallan. Ford Garaje Modernoko Joseba Lopezek irabazi zuen, helmugara bakarrik helduta (1:25:07). Burundako Quesos Albeniz taldeko Ailetz Lasa ziordiarra bosgarrena sartu zen, Aralarreko Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberria hamaikagarrena eta bere taldekide Josu Alberdi hamahirugarrena, 10 segundora. Bestalde, Jon Gil (El Caserio Valsay) 17.a sartu zen, Unai Aznar (Q.A.) 18.a, Inhar Astiz (I.I.) 27.a, Javier Mitxaus (I.I.) 28.a eta Imanol Galarza (I.I.) 38.a.



Eneko Aramendia, Odei Juango eta Altsasuko lasterketako txapeldunak, podiumean. LEYRE MATEOS GALARZA

Altsasuko Lasterketan Unai Iribar txapeldun

TXIRRINDULARITZA Esprint oso estuan gailendu zen gipuzkoarra. Tarteko helmugan saria Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Eneko Aramendia iturmendiarrak jaso zuen eta aurten erretiroa hartuko duen Joseba Juango lakuntzarrari aitortza egin zitzaion

Sociedad Deportiva Alsasuak Altsasuko festetako larunbatean antolatutako 89. Altsasu Txirrindularitza Probak azken unera arte mantendu zuen txirrindulari zaleen interesa. Izan ere, esprint estuan erabaki zen proba, horren estuan, epaileek denbora luzea behar izan zuten irabazlea nor izan zen erabakitzeko. Zentimetro eskasen aldearekin eta bildutako ikusle guztien zalantzen ondoren, azkenean epaileek egiaztatu zuten Unai Iribar goierritarra (AMPO) irabazi zuela Estatuko lasterketa zaharrenetarikoa den Altsasuko proba (2:50:45), afizionatuen mailako Euskaldun Torneoak azken lasterketa, hain zuzen. Bere atzetik sartu ziren Baque taldeko Mauricio Graziani eta Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarreko Xavier Canellas.

lhesaldi ugari

Altsasuko proba gogorra da (123 km). Afizionatuen mailako puntako 146 txirrindularik har-

tu zuten irteera eta 93 iritsi ziren helmugara. Altamira 5 aldiz igo behar izan zuten. Proba oso azkarra eta mugitua izan zen hasieratik, eta hainbat ihesaldi saiakera izan ziren, tartean Asier Ormazabal ziordiarra egindakoa. Baina helmugarako 40 kilometroren faltan zazpi txirrindulari joan ziren ihesean, 2 minutuko distantziarekin. Tartean zegoen Rural Kutxako Eneko Aramendia iturmendiarrak. Pentsatzekoa zen euren artean erabakiko zela Altsasuko trofeoa, baina ez zen horrela izan. "Bi kilometroren faltan ihes egingakoak harrapatu ditut. 500-600 metroren faltan Mauriciok ihes egin duela ikusi dut eta bere atzetik hasi naiz. Pentsatu nuen

AURTEN ERRETIROA HARTUKO DUEN ODEI JUANGO LAKUNTZARRARI AITORTZA EGIN ZIOTEN

zerbait egin ahal nuela, baina irabaztea ez. Eta, azkenean, ahal izan da" adierazi zuen Iribarrek bukaeran, pozik, bere familiako kideez inguratuta. Valentziako Espainiako Txapelketara joango den txirrindulariak horrela desedituko du denboraldia.

Gure txirrindularien lana aintzat hartuz, Asier Ormazabal (Lizarte) 21.a sailkatu zen, Odei Juango (Telcom) 25.a, Eneko

Aramendia (Rural Kutxa-Seguros RGA) 38.a, Pablo Villar (Telcom) 51.a eta Alex Unzilla (Telcom) 54.a.

Euskaldun Torneoari dagokionez, Lizarte taldeko Martí Marquezek lortu zuen garaipena. Rural Kutxako Victor Etxeberria hirugarrena izan zen. Bestalde, Lehendakari Txapelketa aste-buru honetan erabakiko da Oñatin. Lizarteko Francisco Galvanek (134 puntu) eta Rural Kutxako Xavier Cañellasek (131 puntu) dute jokoan txapelketa.

Tarteko helmugak Eneko Aramendiarendako

Altsasuko Itzulira bueltatuz, probako talderik onena Baqueizan zen eta mendiko maillota AMPO taldeko Asier Etxeberriak jantzi zuen. Bestalde, Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarreko Eneko Aramendia iturmendiarrak tarteko helmugan saria irabazi zuen.

Odei Juangori omenaldia

Sari ematean Sociedad Deportiva Alsasuak Odei Juango lakuntzarrari (Telcom) omendu zuen, 13 urte eta gero txirrindularitza utziko duelako. Aralar Txirrindularitza Taldean trebatu zen Juango eta Rural Kutxa-Seguros RGA taldean 4 urtez eta eta Telcom afizionatuen taldean urte batez ibili da. Berak aipatu zuenez, azken urteetan arazoak izan ditu erorikoak izan dituelako, eta, horretaz gain, polenari alergia dio eta horrek behar bezala entrenatzeko eta lehiatzeko zailtasunak ekartzen dizkio. Horregatik, azaldu zuen beste denboraldi bati aurre egiteko ez duela bere burua prest ikusten eta beste ibilbide bati ekingo dio. Txalo zaparrada beroa jaso zuen guztiz hunkituta eta eskertuta zegoen lakuntzarrak.



Iribarrek eta Mauricio Grazianik esprint estua izan zuten. LEYRE MATEOS GALARZA

Kirol egokitua eskainiko du Mankomunitateak

KIROLDEGIA Soinketan, igeriketan, musikoterapian eta psikomotrizitatean izena ematea zabalik dago Mankomunitatean. Bestalde, fibromialgia eta antzeko gaixotasunak dituztenei jarduera fisikoa eskainiko zaie

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak inklusibotasunean lanean jarraitzen du eta beste behin kirol egokitua eskainiko die behar bereziak dituzten sakandarrei.

Igeriketa eta soinketa

Batetik, igeriketa eta soinketa eskola antolatuko dira Arbizuko kiroldegian, urriaren 1etik maiatzaren 15era, astelehenetan eta asteazkenetan, 17:00etatik 18:00etara. Aitor Mozok gidatuko ditu ikastaroak eta jarduera dohainik da. Hala ere, izena eman beharra dago Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus).

Musika-terapia eta psikomotrizitatea

Bestetik, behar berezi edo ez-gaitasunen bat duten sakandarrei zuzendutako musika-terapia eta psikomotrizitate jardunaldiek aurten ere segida izango dute.



Masajea jasotzen. UTZITAKOA

karteak ordainduko die ikastaroa eta elkartekoak ez direnek 50 euro ordaindu beharko dituzte. Behin izena emanda, derri-gorrezkoa izango da klasera joatea.

Fibromialgia eta antzekoendako jarduera fisikoa

Fibromialgia, Neke Kronikoaren Sindromea, Sentiberatasun Kimiko Anizkoitza eta antzeko sindromeak dituzten pertsonendako jarduera fisikoa espezifikoa da Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eskainiko duen beste ikastaro bat. Irurtzunen, Etxarri Aranatz eta Altsasun sortu nahi dira taldeak eta izena ematea zabalik dago, Kirol Zerbitzuan.

Gaixotasun hauek dituzten pertsonen onura nabarmena ekartzen die jarduera fisiko espezifikoa honek eta Sakanako Mankomunitateak makina bat urte daramatza ikastaro hau eskaintzen.

Berdinketarekin ekin dio denboraldiari Osasuna Magnak

ARETO FUTBOLA Peñiscolarekin bina berdindu zuten berdeek. Bihar Jaenen kontra ariko dira, Andaluzian

Osasuna Magna zapore gazi gozoarekin geratu zen 2018-2019 denboraldia mustu zuen partida jokatu eta gero. Izan ere, Anaitasunan jokaturako partidatan talde berdea aurreratu zen, baina Peñiscolak bina berdindu zuen eta Chinok talde berdeari garaipena eman ahal zion penalti bikoitza huts egin zuen partida bukatzeko segundo eskasak geratzen zirenean. Hortaz, puntu banaketarekin despeditu zen lehia.

Dani Saldisek aurreratu zuen Osasuna Magna hirugarren mi-

naturako. Imanol Arregik Chino, Alex Diz eta Juninho jokari berriak atera zituen kantxara eta azken honek, bereziki, partida bikaina egin zuen. Bigarren zatian Juninhok eta Alex Dizek aukera sendoak izan zituzten, baina huts egin zuten. Aldiz, Peñiscolak bana berdintzea lortu zuen. Juninhok berdeen bigarrena sartu zuen, baina nafarrek ez zuten gailentzea lortzen. Rafa Usinen falta batek Peñiscolaren aldeko penalti bikoitza eragin zuen eta, horrela, bina berdindu zuen Peñiscolak.

Marteli penaltia egin zioten, baina Chinoren penalti jaurtiketak zurtoinean bukatu zuen eta partida berdinketarekin bukatu zen, Osasuna Magnaren zaleen penarako.

Larunbatean Jaenen

Lehen mailako liderra Movistar Inter da (3 puntu). Osasuna Magna 9.a da (puntu 1). Bigarren jardunaldian, Osasuna Magna Jaenen ariko da, bihar, larunbatean, 18:30ean, Jaenen kontra.

Rafa Usin eta Eric Martel selekzioa

Espainiako selekzionatzaileak Osasuna Magnako Rafa Usin eta Eric Martel hautatu ditu Espainiako selekzioak irailaren 23 eta 26 bitartean Ceutan jokatu diren lagunarteko partidak jokatzeke.



Gaztetxoak futbol campusean.

FUTBOLA Sakanako Futbol 8 Topaketan izena ematea zabalik

Sakanako Mankomunitateak, Sakanako futbol eta areto futbol klubuen eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, 2018/2019 futbol 8 eta areto futbol 8 topaketak antolatuko ditu kimuen mailan (2007an eta 2008an jaiotakoak) eta benjaminen mailan (2009an eta 2010ean jaiotakoak). Bertan aritu nahi duten taldeek urriaren 5a baino lehen eman beharko dute izena. Horretarako Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzura jo beharko dute (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus).

Aurreko urtean Olaztin, Altsasun, Urdiainen, Etxarrin, Lakuntzan, Uharte Arakilen eta Ziordian jokatu ziren partiduak. Txapelketaren helburua futbola sustatzea denez, ez zaio lehia-kortasunari tokia egiten: ez da sailkapenik egiten. Horrela, haurrek lasaitasunez eta kiroltasunez jokatzen dituzte partiduak. Eta topaketak bukatzen dituztenean auzate ederra egiten dute. Aurreko urtean Dantzalekun izan zen ospakizuna.

FORMAZIOA Lakuntzan desfibriladore birziklatze ikastaroa

Desfibriladorea erabiltzen ikasteko ikastaroa behin egitearekin ez da nahikoa, ikasitakoak birziklatu behar dira. Mankomunitateak desfibriladore birziklatze ikastaroa antolatu du urriaren 29an, Lakuntzan, 16:30etik 20:30era. Izena ematea zabalik dago Mank-eko Kirol Zerbitzuan (kirolak@sakana-mank.eus edo 948 464 866).

PREFERENTEA

1. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Etxarri Aranatz - San Jorge	2-0
SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Burlades B	3
2 Etxarri Aranatz	3
PARTIDUA	
LARUNBATEAN	
16:30 Doneztebe - Etxarri (<i>Donezteben</i>)	

Etxarrik denboraldia hasi du

Preferente mailako denboraldia bikain hasi zuen Etxarrik. Lehen zatian ez zen mugimendu aipagarriarik egon, baina bigarren Saezek eta Darlingek 2 eta 0 aurreratu zuten Etxarri. Ongi defendatu zuten eta puntuak etxean geratu ziren.

ERREGIONALA

2. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Lagun Artea - Gazte Berriak	5-1
Altsasu - Iruña B	2-0
SAILKAPENA	
ERREGIONALEKO 1. MULTZOA	
1 Lagunak B	3
2 Lagun Artea	3
4 Altsasu	3
PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
19:00 Ardoi - Altsasu (<i>Zizurren</i>)	
IGANDEAN	
11:30 Iruña B - Lagun Artea (<i>Taxoaren</i>)	

Bigarren garaipena

Lagun Arteak eta Altsasuk bigarren garaipena jarraian lortu zuten. Lakuntzan jaun eta jabe izan zen Lagun eta Davilak (2), Zubiriak (2) eta Berasategik lortutako golei esker 5 eta 1 irabazi zuen. Altsasun, nahiz eta festetan murgildurik egon, Josebak eta Lobok sartutako golei esker 2 eta 0 irabazi zuten gorritxoek.

EMAKUM. ERREGIONALA

2. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Lourdes - Altsasu	0-6
SAILKAPENA	
EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA	
1 Osasuna	6
5 Altsasu	6
PARTIDUAK	
IGANDEAN	
18:15 Altsasu - Burlades (<i>Dantzalekun</i>)	

Altsasuko neskek ongi hasi dira

Emakumezkoen erregional mailako Altsasuk ezin hobe hasi du liga, lehen jardunaldian Zarramonzari 1 eta 0 eta bigarrenean Lourdesi 0 eta 6 irabazita. Iganetan etxean jokatu dute, Burlades taldearen kontra.

Otadiko Kristo Deunako txapelek badute jabea

PILOTA Garai-Bergara, Osa-Elizegi eta Azketa-Elizegi izan ziren txapeldunak Altsasun

Altsasuko festetako larunbat gauean jokatu ziren, Burunda pilotalekuan, 49. Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketako finalak. Aipatu txapelketa beterranoa Sociedad Deportiva Alsasuak antolatu zuen, aurten Pilotajauku taldearen laguntzaz. Eta aipatzekoa da, lehenengoz, emakumezkoek parte hartu zutela.

Altsasuko emakumezkoen finala estua izan zen, eta azkenean Leire Garaik eta Arrate Bergarak lortu zuten txapela janztea, 18 eta 13 irabazi eta gero. Gizonezkoen jubenilen finala iritsi zen ondoren. Olaetxea eta Lazkoz sakandarrek ahaleginak egin zituzten, baina Osa eta Elizegi izan ziren txapeldunak, sakandarrak 13 tantotan utzi eta gero. Eta bukatzeko, 23 urtez azpikoen finala jokatu zuten Canabalek eta Garmendiak Azketaren eta Elizegiren kontra. Alde handiarekin gailendu ziren Azketa eta Elizegi (9 eta 22).

Otadiko finalak

Sociedad Deportiva Alsasuak eta Pilotajaukuk antolatutako 49. Otadiko Kristo Deuna Txapelketako finalen emaitzak:

Emakumeak

- Leire Garai-Arrate Bergara 18 / Nora Mendizabal-Naroya Agirre 13

Jubenilak

- Osa-Elizegi 22 / Olaetxea-Lazkoz 13

23 urtez azpikoak

- Canabal-Garmendia 9 / Azketa-Elizegi 22



Aurreko urtean Lizarragan jokatu zen Ergoienako Bira eta aurten, aldiz, Unanun.

Unanutik abiatuko da bihar Ergoienako Bira

ATLETISMOA Larunbatean, 10:00etan hasiko dira kategoriatxikikoen lasterketak eta 11:00etan abiatuko da Sakanako Koparako baliagarria den 8,5 km-ko lasterketa, Unanu, Dorrao eta Lizarraga batuko dituenak

Kirola eta atletismoa bulkatu eta Ergoienan ekitaldiak antolatzeko Ergoienako Bira antolatzea erabaki zuten bere garaian. Ordutik hainbat urte pasa dira eta nagusi egin da Ergoienako Bira, aurten 14. edizioa izango baita jokoan jarriko dena. Bihar jokatu da, larunbatean, goizeko 10:00etatik aurrera, eta aurten Unanu izango du abia-

puntu eta helmuga. Sakanako Kopa-Lasa Kirolak Atletismo Sarirako baliagarria den lasterketa da Unanu, Dorrao eta Lizarraga batzen dituenak.

10:00etan txikiak eta 11:00etan helduak

Ergoienako Udala da Ergoienako Biraren antolatzailea, Lasa Kirolak dendaren laguntzarekin.

Horretaz gain, makina bat komertzioaren babesak izan dute. Goizeko 10:00etatik aurrera neska-mutilen probak jokatu dira Unanun, eskoletatik abiatuko direnak, eta ondoren proba nagusiari ekingo diote gazteek eta helduek, 11:00etan, 8,5 km-ko proba gogorrari. Izan ere, Ergoienako hiru herriak lotzen ditu lasterketak.

Aurten Unanuko eskoletan hasiko da, Dorraora heldu, handik buelta hartu eta atzera ere Unanutik pasako da, Lizarraga bidea hartzeko. Lizarragatik Dorraora joko dute korrikariak eta handik Unanura, helmugara. Ibilbidea gogorra da, oso gorabeheratsua, eta izerdi asko bota behar izaten dute korrikariak Ergoienako Bira osatzeko eta, nola ez, irabazteko.

Ergoienako Eguna

Indarrak behar bezala berreskuratzeko, korrikariak auzate ederra izango dute zain eta ondoren hasiko da sari banaketa. Bertan irabazleek bertako produktuen loteak eta oroigarriak jasoko dituzte eta korrikariaren artean ere loteak zozketatuko ditu antolakuntzak.

Ergoienako Birarekin batera Ergoienako eguna ospatuko dute ergoendarrek eta lasterketaren ondoren bazkaltzera bilduko dira, eguraldiak laguntzen badu kalean. 60 pertsonatik gora daude izena emanda herri bazkarian. Eta lasterketa burutzen den bitartean azoka txikia egongo da Unanuko eskola parean.

Izena ematea proba hasi baino lehen

Ergoienako Biran parte hartzeko probaren egunean bertan eman beharko da izena, bihar, larunbatean, lasterketa hasi baino lehenago, Unanuko eskoletan.

Emakumeak korrikan ikasteko eta trebatzeko eskola

Urriaren 19an hasiko da Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskolako jarduna. Izena ematea zabalik dago

Emakume askok egiten dute korrika. Beste asko ere animatuko ziren, baina korrika egiteko teknikak zeintzuk diren ez dakizkitez, korrikan nola hasi, luzaketak...

Emakumeei korrika egiteko beharrezko prestakuntza eskaintzeko duela 7 urte Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskola antolatu zuen Sakanako Mankomunitateak eta erantzuna primerakoa izan zen. Aurten ere Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskola antolatu du Mank-ek 18 urtetik gorako emakumeendako. Horretarako, Altsasuko Udalaren, Iñigo Aritzak ikastolaren eta Dantzaleku Sakanako Atletismo Taldearen laguntza izan du.

Bi aukera: hastapena edo hobekuntza

Emakumeen Atletismo Eskolaren 7. edizioa izango da aurten, 2018-2019 denboraldia. Urriaren 19an hasiko da eta maiatzaren bitartean, ostiralero atletismoaren nondik norakoetan trebatuko dira izena ematen duten emakumeak, Aitor Mozo Villanueva lakuntzarraren begiradapean. 17:15etik 18:00etara hastapen ikastaroa izanen da, atletismoan lehen aldiz murgiltzen diren emakumeendako, eta 18:00etatik 19:15era hobekuntza ikastaroa, esperientzia duten emakumeendako.



Korrikan egiteko beharrezko trebakuntza jasoko dute emakumeak.

nueva lakuntzarraren begiradapean. 17:15etik 18:00etara hastapen ikastaroa izanen da, atletismoan lehen aldiz murgiltzen diren emakumeendako, eta 18:00etatik 19:15era hobekuntza ikastaroa, esperientzia duten emakumeendako.

Urriaren 5era arte

Emakumeen Atletismo Eskolan aritzeko izena ematea zabalik dago, urriaren 5era arte, Mankeko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus). Prezioa: 50 euro.

Gure pilotariak San Mateotan murgilduta

PILOTA Atzoko Ezkurdia-Imaz eta Victor-Rezusta bikoen arteko emaitzaren faltan, oraindik gure pilotari guztiek finalerako sailkatzeko aukerak zituzten. Igandean jokatu da Logroñoako final handia

Logroñoako San Mateoek aurrea jarraitzen dute. Herenegun Artolak eta Martijak Elezkano II.a eta Albisu izan zituzten aurkari, eta bezperan Altuna III.aren eta Aretxabaletaren kontra 22 eta 19 galdu eta gero, San Mateotan bizirik jarraitzeko irabazi beharrean zeuden. Eta baita lortu ere.

Martijaren multzoan gaur erabakiko da finalista

Partida on eta lehiatua, behetik gora egin zuten Artolak eta Martijak. 19 eta 14 aurreratu ziren Elezkano eta Albisu, baina Etxeberrikoak eta gipuzkoarrek ez zuten amore eman: 19 eta 18 gerturatu ziren hasieran, 20. tantoa Elezkanoren eta Albisuren aldera erori zen, eta azkeneko 4 tantoak segidan egin zituzten Artolak eta Martijak. Horrela, 20 eta 22 irabazi zuten.

Altunak eta Aretxabaletak eta Elezkano II.ak eta Albisuk gaur, ostiralean jokatzen duten par-



Ezkurdia ikusgarri aritu zen. L.M. UNCITI

zuzen, atzo iluntzean Joseba Ezkurdia eta Imaz Victorren eta Rezustaren kontra aritzekoak ziren. Ezkurdia eta Imaz igandeko lehen jardunaldian Olaizola II.aren eta Zabaletaren gainetik pasatzetik zetozen -8 tantotan utzi zituzten torneoa irabazteko faboritoak zirenak - eta atzo Victorri eta Rezustari irabaziz gero, zuzenean sailkatuko liriteke igandeko finalerako, Victorrek eta Rezustak galdu egin baitzuten asteartean Olaizola II.aren eta Zabaletaren kontra. Aldiz, Ezkurdiak eta Imazek galduz gero, biko bakoi-tzak garaipen bat izanen luke eta tanteoak erabakiko luke nor sailkatzen zen finalerako.

Bakaikoa ardoaren desafioan

Bihar, larunbatean, Bodegas Domus Dei desafioa jokatu da San Mateotan. Buruz buruko partidari Joan Bakaikoa etxarriarra Darioioren kontra lehiatu da.

tidan zer gertatzen den itxaron beharko dute Artolak eta Martijak, igandeko San Mateotako torneoko finalera sailkatzen diren edo ez jakiteko. Beste multzoan, Ezkurdia eta Zabaleta ari diren multzoan hain



Aizkolariaren lana jarraitzen zale ugari hurbildu zen Lakuntzara.

Iker Vicente nagusi Lakuntzako Euskal Herriko kanporaketan

AIZKORA Vicente, Larrañaga, Atutxa, Otaegi, Otaño eta Azurmendi sailkatu ziren Euskal Herriko final handirako

Lakuntza aizkora zaleen topaleku izan zen igandean. Euskal Herriko Aizkora Federazioak Lakuntzako Udalaren laguntzaz antolatuta, igandean Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu zen. Iker Vicenteren eta egungo txapeldun Aitzol Atutxaren arteko dema ikusteko ikusmin handia zegoen eta Behar-Zanako harmailak bete egin ziren.

Guztira 12 aizkolari ziren lehiatzeakoak, baina Ugaitz Mugertza ez zen aritu, bizkaraldeko arazoren bat tarteko. Bi txandatan lehiatu ziren aizkolariak eta 6 pago-enbor erdibitza -bi kanardiko (54 ontzakoak), bi 60 ontzako eta bi oinbiko (72 ontzakoak)-, hori izan zen euren egitekoa. Guztien lanak kontuan hartuta, 21 urteko Iker Vicentek egin zuen denborarik onena (20:35). Mikel Larrañaga (20:47), Aitzol Atutxa (21:17), Joseba

Otaegi (22:26), Eneko Otaño (22:31) eta Iñaki Azurmendi (23:00) sailkatu ziren atzetik eta sei aizkolari hauek izango dira urriaren 28an Iruñeko Labriten jokatu den final handian. Ageria denez, aizkolari gazteek hartu dute aurrea eta soilik Azurmendi da beteteranoen artean goi mailari eutsi diona.

Jon Rekondo 7.a sailkatu zen (23:12), Ruben Saralegi 8.a (23:38), Julen Alberdi 9.a (23:40), Jon Irazu 10.a (28:33), Xabier Zaldúa 11.a (29:28) eta, esan bezala, Ugaitz Mugerzak ez zuen parte hartzerik izan, lesionatuta baitago.

Aitzol Atutxa Euskal Herriko lehen mailako txapelduna izan da azken lau urteetan. Aurreko urteko txapelketan soilik 18 segundoko atera zizkion Vicenteri, eta aurten txapela nork jantziko duen, ikusmin handia dago. Urriaren 28ko Labriten finalean kanporaketako lanaren bikoitza egin beharko dute, 12 enbor.



ALTSASU GURASOAK

Pilotari sakandarrak altsasuarrekin bat

PILOTA Altsasuko festetan Aspek antolatutako pilota jaialdian giro beroa izan zen. Hasierako partidari Etxeberriak eta Martinezek 22 eta 17 irabazi zieten Retegi Biri eta Adur Lasari. Ondoren Ezkurdiak eta Zabaletak Altuna III.a eta Martija izan zituzten aurkari.

Pilotariak Altsasuko auzipetuen gurasoak alboan zituztela atera ziren kantxara, Altsasuko pilota zaleek biziki eskertu zuten keinua. Altunak eta Martijak ez zuten egun ona izan eta Ezkurdiak eta Zabaletak garaipen erosoan lortu zuten, 9 eta 22 irabazi baitzieten.



Finala jokatze saikatu ziren 6 aizkolariak. Otaño lehenengo aldiz ariko da.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 21

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

OLAZTI Cotillas en 3D ikuskizuna Gorka Aginagalde eta Iñigo Salinero aktoreekin. 22:30ean, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Puro Relajo taldearen kontzertua. Camping-aren 23. urteurren festa. 23:00etan, campingean.

LARUNBATA 22

ALTSASU Altsasu-Satrustegi-

Lizarrusti-Altsasu 70 km-ko ibilbidea eginen dute Barranka Txirrindulari Taldeko errepide atalekoek. 08:00etan, San Juan plazatik.

ETXARRI ARANATZ Etorkizuna dantza eskola eta Etxarri Aranazko Abesbatzaren ikuskizuna. 19:00etan, plazan.

OLAZTI Podera-mente 2 hipnosi ikuskizuna. Elena eta Mario Cobralti hipnotistak. 20:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 23

ALTSASU Barranco de Poche (Artaiz) 37 km-ko ibilbidea eginen dute Barranka Txirrindulari Taldeko mendi atalekoek. 07:30ean, taldeko egoitzatik.

OLAZTI Jon Braun txontxongilo ikuskizuna. Anima Maravillas konpainia. 17:00etan, kultur etxean.

IZURDIAGA Txu&Txu Lorena Arangoa eta Patxi Larrea artisten klown ikuskizuna. 19:00etan, plazan.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 24

IRURTZUN Emakumeendako sinadura elektronikoa tailerra. DEDAKo fundazioak antolatuta. 17:00etatik 19:30era, kultur etxean.

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako kontzentrazioa. 19:30ean, Zumalakarregi plazan.

ASTEAZKENA 26

ETXARRI ARANATZ Haurtxokoa martxan jartzeko bilera. 19:00etan, kultur etxean.



IRURTZUN Begoña Rastrilla margolariaren erakusketa. Irailaren 30 arte, Pikuxar euskal txokoan.



UHARTE ARAKIL Kristauak erasoan munduan zehar argazki erakusketa. Irailaren 30 arte. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Aralarko santutegian.



OLAZTI. Urbasako igoera 1968-2018. Sakana motorsport taldeak antolatuta. Irailaren 14tik 23ra. Ostiralean 18:00etatik 21:00etara eta larunbatetan eta igandetan 12:00etatik 14:00etara, kultur etxean.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK
Etxe bat alokatzen da, jardinarekin, Sakanan. Harremanetarako 690343978

LEHIAKETAK
GAZTEWOOD. Altsasuko gaztetxearen III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako gazteewood@gmail.com edo sare sozialak gazteewood proiektuan.

IKASTAROAK
Etxarri Aranazko udalak honako ikastaro eskaintza egin du: Pintura (kultur etxean, astearteetan 15:15tik 18:15ra) / Soinketa leuna ((Kultur etxean, astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 18:00etara) / Aerobic (astearte eta ostegunetan 18:15atik 19:15tara) / Zumba (astearte eta ostegunetan, 19:15atik 20:15tara) / Yoga (kultur etxean, astearte eta ostegunetan, 09:15atik 10:15tara) / Haurrendako zirkulu tailerra (eskolako psikomotrizitate gelan, astelehenean);

6-9 urtekoak 16:45atik 17:45era eta 10-12 urtekoak 17:45etik 19:45era). Izen ematea irailaren 14tik 26era zabalik. Inprimakiak udaletxean, bulego ordutegian edo www.etxarriaranatz.eus web orrian.

Adinduendako tailerra sortzeko aukera Etxarri Aranatz: Buru trebetasuna, arintasuna eta bestelakoak landu nahi dituzten adinduendako tailerra sortzeko aukera dago. Interesa duenak hots egin dezala 948 460 004 edo 606 239 008 telefono zenbakietara edo kultura@etxarriaranatz.eus

eus e-postara idatzi dezala.

Olatzagutiako udalak margoketa eta lentzeria ikastaroak antolatu ditu: Margoketa astearte eta ostegunetan 17:30atik 19:30era Kultur etxean. Lentzeria astelehenean (17:30etik 19:30ra) eta ostegunetan (18:00atik 20:00etara) Kamiogaina jubilatu elkartearen Lastailaren 15ean hasiko dira. Izena emateko irailaren 24tik lastailaren 5era Udaletxetik pasatu bulego ordutegian.

Irurtzungo Udalak honako eskaintza

prestatu du: antzerki tailerra, irakurketa taldea, marrazketa eta pintura, mantentze-gimnasia, pilatesa, hipopresiboak, bizkortzea-gap, zumba, kirol entrenamendua, gorputz jarreararen birkokatzea eta spinniga. Izen ematea hilaren 24ra arte dago zabalik.

Irurtzunen eginen diren beste ikastaro batzuk: euskara/ dantza eta joaldunak/ abesbatza/ helduendako gaztelania/ haurrendako ingelese/ yoga integrala/ mugimendu adierazkorrari rio abierto sistem/

meditazio tailerra/ jantzigintza eta arroparen birziklapena/ fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea/ harri-jasotze eskola/ kick boxing eta karatea.

OHARRAK
Adona. Odol-emateak Etxarri Aranatz: Irailaren 26an. 17:00 – 20:30. www.adona.es/eu

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.


GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hilero 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

OPATUTAKOAK/ GALDUTAKOAK
GALDUTAKOAK

Irailaren 9an Etxarri eta Ataunen artean TXIRRINDULARI EGUZKI BETAURREKOAK galdu nituen. Topatuz gero itzultzea eskertuko nuke. 626270446

www.iragarkilaburak.eus

Ordu aldaketa gehiago ez egitearen alde zaude?




DE KOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua
info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860

ESKELA



Martín Andueza Mendinueta



Gixane, gure lankide izandakoaren aita. Muxu bat!

OROIGARRIA



Martina Senar

I. Urteurrena



Urte bat pasatu da
ze erraza izan den zurekin egotea
ze zaila zu gabe.

Meza, Lizarragako elizan, igandean 11:00etan izanen da.

Zure familia

ESKERTZA



Martín Andueza Mendinueta

Bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu gure aitarekin gogoratu zareten guztioi eta egunerokotasunean momentu atseginak pasarazi dizkiozuenoi. Arbizuko medikuari eta erizainari, 112ko eta ospitaleko langileei izandako gertutasunagatik eta profesionaltasunagatik. Koruan abestu duzuenoi eta Rafari txistua jotzeagatik.

Guaixeko nire lankide ohiei gurekin gogoratzeagatik eta guregana hurbildu zareten ezagunei eta lagunei zuen goxotasunagatik.

Deno, esker mila.

Jakin ezazue aita eskertuta egon dela beti eta egonen litzatekeela ere zuengandik jaso duen guztiagatik.

Familia

ESKELA

Baldomero Lopez de Sabando



Handietan handiena...
Inork ezin lotu zure bizitza
Inork ezin segi zure oinen dantza
Gero arte osaba Baldo

Etxarri Aranatzen

Zu familiye



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- **Oñatz Berastegi Cid**, abuztuaren 28an Urdiainen
- **Izadi Sanchez Aristorena**, irailaren 8an Etxarri Aranatzen
- **Aimar Lazkoz Errazkin**, irailaren 12an Etxarri Aranatzen

EZKONTZAK

- **Idoia Sarasola Flores eta Iñaki Miguel Martiarena**, irailaren 13an Altsasun
- **Erkuden Martin Cobos eta Roberto Gallego Lopez**, irailaren 18an Altsasun

HERIOTZAK

- **Teresa Zubiria Ostiza**, irailaren 16an Urdiainen
- **Martin Andueza Mendinueta**, irailaren 18an Arbizon

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU
NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 21



Min. 14° Max. 25°

Larunbata, 22



Min. 15° Max. 28°

Igandea, 23



Min. 15° Max. 31°

Astelehena, 24



Min. 13° Max. 22°

tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es



Miguel Angel Sagaseta eta txistulariak talde argazkian. LEYRE MATEOS GALARZA

Aita Miguel: "Niretzat gozamina izan zen ikerketa hau egitea"

Euskal Herriko Txistulari Elkarteak prestatutako omenaldia egun osoko festa izan zen Urdiainen

Leyre Mateos Galarza URDIAIN

Miguel Angel Sagaseta Ariztegik, Urdiaingo apaizak, jaso zuen Euskal Herriko Txistulari Elkartearen (EHTE) Urrezko Domina pasa den larunbatean, irailaren 15ean. Sagaseta euskal dantzak biltzen dituen lanagatik omendu zuten apaiz den herrian. Egun guztirako ekitaldiak zeuden prestatuta, eta asko izan ziren gerturatu ziren bizilagunak.

Goizeko 09:30etik bildu ziren txistulariak herriko frontoian, handik Urdiaindik kalejiran abiatu ziren eta jendea haien atzetik batzen joan zen. 11:30 aldera Aita Miguel agertzean harrera egin zioten txistuaren musikaren erritmora. Pozez beterik muxuak eta besarkadak trukatu ziren.

Errekonozimendua

Udaletxerainoko bidea hartu zuten gero, eta txistularien atzetik bukatutzat eman zen kalejira. Udaletxe barruan, txikia gelditu zen prestatutako gela, hainbat kamera eta txistularik joan ziren lehenbailehen tokia hautatzera. Oso azkar bete zen aretoa eta hasiera eman zuen EHTEko lehendakariak.

Hasieran eskerrak eta errekonozimendu handia eman zitzaion omenduari hain jende talde ederra batzeagatik. Bere historia kontatzen hasi ziren, nolakoa izan zen bere haurtzarora, lanaren abiapuntua non egon zitekeen... Sagasetaren aita ere aipatu zuten gidari gisa, dantzaria zelako. Hasiera batean

Luzaideko jauzien musika eta dantzak bildu nahi zituela azaldu zuten, baino konturatu zen oso aberatsa zirela Euskal Herriko jauzi dantza guztiak eta bere posizioa aldatuz joan zen.

Domina jartzeko momentua iritsi zen: "Aita Miguelen lana oso baliotsua da, ez da denbora laburrean egin daitekeen lana. Sei alditan joan zen pertsona berdina elkarrizketatzera datu zehatzenak izateko, dantza bakoitzaren pausu guztiak xehekien jakiteko." Hortaz, Lehendakariak, domina hartu zuen eta "ziur nago eman behar dizuguna baino gehiago merezi duzula" esaten zuen bitartean urrezko domina jarri zion. Txistuaren musika eta etenik gabeko txaloen ostean, dantzari batek hutsik gabeko auresku bat dantzatu zuen.

Eskertua

Aita Miguelen hitzen txanda iritsi zen, "eskerrik beroenak etortzeagatik, batez ere zuei txistularien ordezkariak eta txistulariei." Bere lana posible egin duten guztiei, interesik gabe lagundu eta argitaratzeko ideia eman ziotenei eskerrak ematen jarraitu zuen. "Nereztat gozamen hutsa izan zen ikerketa hau egitea" zioen Sagasetak. "Eskerrak hainbat herri dantzari eta txistulariei, beraz domina hau askorena da, Euskal Herri osoarena dela esango nuke" hitz eder hauekin bukatutzat eman zen omenaldia, eta kalean egun osoan festan aritu ziren Aita Miguel maitatuaren omenean.

"Zirkuak arte eszeniko guztiak biltzen ditu"

IKER GALARTZA AKTOREA

Iker Galartza aktorea zirku zalea da. Karpa bat erosi ondoren Gure Zirkua proiektuarekin hasi zen. Zirkuaeren tradizio nomadarekin jarraitu du

Erkuden Ruiz Barroso URDIAIN



Zirku zaletasunari jarraituz, Iker Galartzak hainbat herrialdeetako zirkuak ezagutu ditu. Euskal Herrian horrelako zerbait sortu behar zela uste zuen, eta karpa erosteko urratsa eman zuen. Horrela sortu zen tradizio nomadan oinarritutako Gure Zirkua proiektua. Karpa Urdiainen jarri dute eta gaur eta igandera bitartean bost saio egingen dituzte. Leihatilan lortu daitezke azkenengo sarrerak. Nafarroa Oinez-ek antolatu du Gure Zirkua.

Zer da Gure Zirkua?

Helburu nagusia euskal artistei lana ematea da. Euskal artisten topagune izatea. Horrek ez du esan nahi egunen batean norbait kanpotik badator eta zerbait ekar badezakete ongi etorriak izango ez direnik. Baina momentuz euskaldunak gaude bakarrik: nafarrak, bizkaitarrak, arabarrak, gipuzkoarrak...

Zenbat pertsona zaudete?

Hamabi lagunek osatzen dugu taldetxoa eta hainbat zirkuko diziplina erakusten dugu.

Zeintzuk dira diziplina horiek?

Munduko diziplina zaharrenak: trapezioa, soka gainean ibiltzea, akrobaziak lurrean, baita airean ere, magia, malabarismoa eta umorea ere badago. Pailazoak daude kontuan hartuz umeak etortzen direla. Eta musika. Diziplina guztiak batzen dira pista borobil batean. Hor sortzen da magia, behintzat saiatzen gara. Poza eta alaitasuna eta gauza guztiak koktelera batean sartu eta hori jendearengana gerturatzea.

Nola sortu zen Gure Zirkua?

Afizio handia izan dut zirkua-rikiko. Beti pentsatu izan dut Euskal Herrian horrelako zerbait behar genuela. Ohartu nintzen gure haurrek eskoletan zirku tailerretan parte hartzen dutela. Eta pentsatu nuen zoragarria



Iker Galartza Gure Zirkuaeren ikuskizunean. UTZITAKOIA

izango zela hori guztia karpa batean egin ahal izatea. Beraz, kotxe zaharren zaleek Interneten kotxeak begiratzen duten bezala nik zirkuak begiratzen nituen. Azkenean karpa batekin topo egin nuen Luxenburgon. Gero beste guztia gelditzen zen: harmailak egin eta poliki-poliki hiru urtez aritu naiz lan honetan. Joseba Usobiagarekin hasi nintzen. Malabarista azpeitiar bat enteratu zen zirku bat egiten ari nintzela eta lana zegoenez gelditzeko esan genion.

Zergatik da berezia Gure Zirkua?

Berezia da gurea delako. Zirku asko ikusi ditut eta egia da hemen ikusi ditugunak ez direla hola-koak. Azken finean garbia, goxoa eta ikuskizun xamurra da. Eta euskaraz dela. Jendeak horri garrantzia handia ematen dio, nik ez diot ematen. Baina nik ez nuke jendea animatuko zirku bakarrik euskaraz delako, zirku delako animatuko nuke.

Zirkua arrazoi nahikoa da.

Eusko Jaurilaritzara joaten banaiz diru-laguntzak eskatzera musikarako, dantzarako, dantza kalean egiteko, antzokietarako, kale antzerkietarako eta abarretarako dago. Baina zirkurako

ez dago epigrafe bat. Ez gara arte eszenikoak. Eta nik uste dut arte desberdin asko biltzen dituela zirkuak. Arte eszeniko nagusia da nire ustez. Baina ez da horrela hartzen.

Zirkuaeren tradizio nomadarekin jarraitu duzue. Zergatik?

Taldea egiteko garaian garrantzitsua da. Zirkuan entseatzen dugu, eta magoak bertan lo egiten du, karpa erdian. Beste batzuk furgonetan lo egiten dugu. Zirkua inguratzen dugu furgonetekin. Beraz, zure zirkuarekin zoaz, zure taldearekin, emanaldiak egiten dituzu, dena jaso eta hurrengo lekura joaten zara. Esperientzia oso bat da.

Nolakoa da ikuskizuna?

Denetik dauka. Umorea dago, jendea pozik ateratzen da. Askok ez dakite nola definitu. Politak, zoragarria... Hitzak bilatzen hasten dira eta oso gurea dela esaten dute. Abestiak ere badaude, euskal abesti tradizionak. Kritikak ere izan ditugu bat-batean The Police edo Sting jotzen dutelako. Baina zirkuak nazioartekoa ere izaten jakin behar du. Jakin behar dugu mundura begira jartzen.

Osoa: www.guaixe.eus



Txuspo Poyo Zuhaitz etxearen erakusketan. ARTXIBOA

Txupo Poyoren lehenengo film luzea Zinemaldiko Zinemiran

Izaro irlaren nortasuna, historia eta ondarea aztertu du artista altsasuarrak Izaro film-dokumentalean

ALTSASU

2014. urtean Txuspo Poyoren altzairuzko teila bota zuen Bermeoko alkateak Izaroko irlan. Madalen jaietako protagonista dira Izaro irla eta teila; izan ere, ekintza sinboliko horrekin irla bermeotarrena dela adierazten dute. Duela lau urte tradizioari jarraiki bota zuten altsasuarrak egindako teila proiektu handi baten adar bat baino ez zen izan. Poyo Izaro irlaren inguruko film luzea osatzen ari zen.

Proiektuarekin 2012. urtean hasi zen, nahiz eta ondoren bi urtez eten zuen. Izarorekiko

zuen "obsesioa" bulkatuta egin zuen artistak proiektu hau. Irlaren historia, nortasuna eta ondariari buruz hausnartzen du altsasuarrak. Irudikapenaren, metaforaren eta utopiaren arteko sinfonia bat egin duela azaldu du Poyok. Donostiako Zinemaldian.

Poyoren lehenengo film luzea da, baita lehenengo zinema jaialdia ere. Zinemira Euskal Herrian ekoiztutako filmen saillean lehiatuko da. Artistak dioenez, arte plastikoaren kubo zuria zinearen kubo beltzera saltoa egitea izan da.

Ahotsak eta dantzak bat eginik bihar Etxarri Aranazko plazan

Etorkizuna dantza eskolak eta Etxarri Aranazko Abesbatzak emanaldia eskainiko du bihar, 19:00etan

ETXARRI ARANATZ

Dantza eskolak eta Etxarri Aranazko abesbatzak esperientzia dute elkarrekin aritzen. Kantua eta dantza uztartzen du emanaldiak; hortaz, dantzariak abesbatzaren ahotsekin dantzatzeko dute. Gainera, txistularien laguntza izanen dute ere. Etxarri Aranazko Kultur zerbitzuak antolatutako emanaldia da. Udari eta plazako emanaldien sasoari amaiera emateko ikuskitzuna da.

Errepertorio anitza eta osatua eskainiko dute bi taldeek. Ema-

naldia Agurrarekin hasiko dute, ondoren Hau da eguna, Kitolis arin-arina, Aunitz urtez, Errotazai, Ama begira zazu eta Hiru xito abestiak eginen dituzte, besteak beste. Hainbat abesti Ashera, Kaxarranka, Baskonia suite eta Aske maite grabatutako audioaren gainean dantzatzeko dute. Emanaldia Bukaerako agurrarekin amaituko dute denek batera.

Garagarrean Etorkizuna dantza eskolaren 25. urteurrena ospatzeko Iortia kultur gunean elkarrekin aritu ziren bi taldeak.

Arte Plastikoen Saria Bados eskultore olatzagutiarrari

Euskal Eskultura Berria mugimenduan kokatu zuten kritikariek 1980ko hamarkadan

OLAZAGUTIA

Euskal eskulturaren erreferentia da Angel Bados Iparagirre olatziarra. Eskultore lanak Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle lanarekin uztartu du Badosok. Hainbat belaunaldiko artisten maisu izan da. Orain, Espainiako Kultura eta Kirola Ministeritzak Arte Plastikoen Saria aitortu dio izandako "kalitate bikaineko ibilbide koherenteagatik", baita "tradizioa eta berrikuntza uztartzeko" izan duen ahalmenagatik. Saria 30.000 eurokoa da.

Badosok esan duenez, saria jaso ez duten artista lagun eta ikasle ohiendako omenaldi bat da. Izan ere, ez ditu sariak "ulertzen". Epaimahai baten iritzia dela kritikatzeko du. Espainiako Arte Plastikoen Saria aitortzeko epaimahaia Angela Cruz Arte Garaikidean katedraduna, Blanca de la Torre erakusketa komisaria eta Arte eta Industria Sorkuntzako zuzendaria den Karen Ohlenschlager izan ziren, besteak beste. Eskulturagintzan egindako lana ez ezik, epaimahaiak "teorian eta artearen irakaskuntzan" egindako ekarpenak ere aitortu ditu.

Erreferentia

1980ko hamarkadan Euskal Eskultura Berria mugimenduan kokatu zuten Txomin Badiola, Pello Irazu, Maria Luisa Fernandez eta Jose Luis Morazarekin batera. Oteizaren eta Txillidaren osteko euskak artegintzaren izen nagusietako bat da. 1990ko hamarkadan Arteleku eskultura irakastaroen zuzendaria izan zen Txomin Badiolarekin batera (1994-1998) eta euskal artista ugariren lanak bultzatzea lortu zuten, besteak beste: Itziar Ocariz, Jon Mikel Euba, Ana Laura Aldaz edo Sergio Priegorenak.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO

Makillajearen gezurrak

Lehenik eta behin argitu nahiko nuke, ez naizela gaian aditua, baina asko gustatzen zait. Hori dela eta, hainbat ikastaro jaso ditut, eta hona hemen modu laburrean ikasitako aholku batzuk:

-Makillatzen hasi baino lehen gure azala zaindu behar dugu: azala garbitu, dagokigun hidratzailea erabili eta eguzkitarra babes-krema bota.

-Egunero makillatzea txarra da? Gezurra. Egia da azala arnasten utzi behar dugula, batez ere gauean zehar. Beraz, egunero makillatzea ez da txarra baizik; eta azala ongi ez garbitzea da arazoa. Nahiz eta ez margotu, gauero aurpegia garbitu behar dugu. Eta nola ez, produktu onak erabili behar ditugu, gure azalari dagozkienak. Gure gorputza da eta bakarra; beraz, zaindu behar dugu.

-Azal koipetsuak ez du hidratatzaile behar? Gezurra, azal mota horri dagokiena erabili behar dugu, lipidoen produkzioa estimulatzeko ez dutenak.

-Izotzak begi-tzuloak murrizten ditu? Gezurra, gainera erretzeko arriskua izan dezakegu.

-Begiak margotzen ditugunean ezin ditugu ezpainak margotu?

Gezurra, aukeratutako koloreen arabera izango da; armonia bat lortu behar dugu bien artean.

-Begiak beltzez margotzeko handiago egiten ditu? Gezurra, begia barrendik margotzen badugu arkatzarekin justu kontrakoa lortuko dugu.

-Zuzentzaileak beti gure azala baino argiago izan behar du? Gezurra, gure azalaren antzekoena izan behar du, eta gure makillajearena ere, nola ez. Oso argia bada disimulatu beharrean, kontrakoa lortuko dugu, gehiago nabarmendu.

-Makillajea eta kosmetikoak ez dira zahartzen? Gezurra, dena zahartzen da batzuk besteak baino lehen: betile maskara (6 hilabete), kremak (12), lurrinak (36), ezpainetakoak (6-12, markaren arabera) ...

-Ezpain gorriak bakarrik azal zurientzat dira? Gezurra, gaur egun gorri mota asko ditugu merkatuan eta hobekien datorriguna erabiltzean dago gakoia.

-Betile maskara ponpatu behar dugu pikorrak kentzeko? Gezurra, inoiz ez dugu hori egin behar, horrek haizea sartuko dio eta horrela lehortuko da.

-“Lip Plumperrak” ezpainen bolumena handiagotuko dute? Gezurra. Zer dira? Gloss baten antza dute eta honako osagai hauek dituzte: piperbeltza, mentola, kanela eta kafeina. Honek narritadurirritazioa sortzen du, baina ez da betirako baizik eta margotuta duzun bitartean.



GETXOKO KULTUR ETXEA

Baldaren eleberria saritua

Nerea Balda irurtzundarraren eleberriak irabazi du Ramiro Pirilla 1. Eleberri Laburren Lehiaketa. Ramiro Pinilla Eleberri Laburren Lehiaketa antolatutako lehenengo aldiz Getxoko Kultur Etxeak. Nerea Balda irurtzundarrak euskarazko kategorian irabazi du. *Atzerrian, abroad, á l'etranger, all'estero* da eleberriaren izenburua.



Elias Taño artistak murala margotzeko laguntza izan du.

Elkartasunaren eta askatasunaren koloreak

Elias Taño Valentziako artistak Altsasuko auzipetuekin elkartasunean murala egin du Altsasuko Burunda frontoian. 'A tiro hecho' kolektiboko kidea den Carla Chillida artistaren eta hainbat boluntarioen laguntza izan du Valentziako margolariak

ALTSASU

Irailaren 14an, Altsasuko festetako egun handian, Altsasu Gurasoak taldeak antolatuta Elias Taño artistaren mural margoketa hasi zen. Frontoiko fatxadan egin zuten murala, Iortia zabalgunearen aurrean. Bi mezu irakurri daitezke: "Elkartasuna herrien arteko sa-

murtasuna" eta "Libertat als d'Altsasukoak Aske". Murala Aratz, Julen, Iñaki eta Jonan espetxeratu zituztela 100 egun betetzen zenean hasi zuten. Jokin, Adur eta Oihan 669 zeramatzaten Altsasuko festetako egun handian.

Altsasuko auziko sententzia atera zenean, garagarrilean, Elias Taño artistak barruan

zuen guztia atera nahi izan zuen dakien moduan: margotzen. Valentziako kaleetara atera zen eta horma batean Altsasuko auzipetuekin elkartasunez mural bat egin zuen. Hurrengo egunetan Valentziako udaleko kaleak garbitzeko azpikontratak murala ezabatu zuen. Hortaz, "praxi txarra" egon zela azaldu-

ta udalak horma bat eskaini zion mural berri bat egiteko.

Bigarren mural hori elkartasunean sortu zuten. Altsasu Gurasoak taldeko kideak egon ziren bertan artista laguntzen. Hala ere, bigarren mural hori ere "erasotua" izan zen: "ultraeskuineak, faxistek, España 2000 elkarteak, Falangeak eta Valentziako beste talde ultraeskuindar batzuek eraso egin zuten". Horma-irudia estaltzeko manifestazioa antolatu zutela gaineratu du Taño. "Lagun talde bat eustera joan zen, baina eraso hau gogorragoa eta bortitzagoa izan zen".

Auzia

Horma-irudia artelan bat baino gehiago da: "Altsasuko gazteekin elkartasuna dago. Injustizien kontra borrokatzen duenarekin elkartasuna ere erakusten du. Nik nahi izan dudana, gainera, errepresio klima hau sortzen dutenak azaleratzea da, hau da, botere judiziala, militarra eta poliziarra". Estatuaren segurtasun gorputzek duten "boterea" ere kritikatu nahi zuen muralaren bitartez. Baina Mordaza legearen aitzakiarekin adierazpen askatasuna mugatu zaiola esan du: "disidentzia erakusten duen edozein izan daiteke errepresio honen biktimia".

Valentziako muralari eraso egin ondoren, "ekintza artistiko politikoa egiteko kausa bat aurkitu genuen. Gure helburua

artearen bidez politika egitea da, edo, politika egin artearen bidez. Aldarrikapen justu bat aurkitu dugu". Sektore "kontserbadoreetan" sortutako arbuioa eta "hedabideek guztia handitu dutela" ikusita zerbait egiteko unea zela uste zuen Taño.

"Altsasukoen aldeko mural bat egiteagatik deitu digute terroristak, katalanistak, batasunakoak... eta haiek, aldiz, sumindutako hiritarrak dira". Hormetan politika egiten dutela esan du Taño. "Gustatuko litzaiguke horma-irudi hauek denbora gehiago egon izana Altsasun gertatutakoa ezagutarazteko". Izan ere, Valentziako artistak azaldu duenez, Euskal Herritik kanpo kasua "isilduta" eta oso "itxuraldatuta" dago. Horregatik debatea sortu nahi zuen.

Elkartasuna

Horma-irudiek jasan duten erasoaren ondoren "sare" bat sortu zela esan zuen Taño, eta elkartasuna aldarrikatzen jarraituko dutela. "Valentziatik baita beste hainbat lekutatik ere zuekin gaude". Askatasunaren eta elkartasunaren alde bukaera arte borrokatuko dutela gaineratu zuen artistak.

Elkartasunean landatu zuten 2017ko azaroan intxaurrondoa ere muraletik gertu. Iortia plaza Altsasukoak Aske-ren aldeko aldarrikapen leku garrantzitsua izan da bi urte hauetan.

Umorea eta hipnotismoa Olatzagutiako Kultur astean

Aginagalde eta Salinero aktoreen 'Cotillas en 3D' ikuskizuna gaur izanen da, 22:30ean, kultur etxean

OLATZAGUTIA

Kultur astea asteartean hasi zen Alberto Iñurrategiren *Elogio del fracaso* hitzaldiarekin, baina gaurtik hasita eta igandera arte gustu eta adin guztietarako ikuskizunak izanen dira Olatzagutiako kultur etxean. Hortaz, *Cotillas en 3D* ikuskizuna izanen da, 22:30ean. Gorka Aginagalde eta Iñigo Salinero aktoreek egiten dute umorezko ikuskizuna da.

Hipnotismo emanaldia da biharko prestatu duten ikuskizun ezberdina. *Podera-mente 2* ikuskizuna Elena eta Mario



Olatzagutiako kultur etxea. ARTXIBOA

Cobratti hipnotizatzaileek egiten dute eta harritzeko eginga dagoela esan dute Kultur zerbitzutik. Hala ere, errespetuan oinarritutako emanaldia da, eta, haurrak joan daitezkeen arren, 14 urte beherako gazteek ezin dute parte hartu ikuskizunean. Bihar izanen da emanaldia, 20:00etan, kultur etxean.

Iganderako, aldiz, haurrendako txotxongilo ikuskizuna prestatu dute. Jon Braun merindiarren istorioa kontatzen du Anita Maravillas konpainiak. Igandean, 17:00etan, izanen da ikuskizuna kultur etxean.

Sarreraren prezioa 6 eurokoa da aurretik erosita eta 8 eurokoa leihatilan, baina Kultur zerbitzuak abonua atera du gaurko eta biharko bi ikuskizunak 10 euroren truke ikusi ahal izateko.



UTZITAKOA

Argentinatik Altsasura kantuan

La Plata Argentinako hiriko Coro del Colegio del Centenario Altsasun izan da Erkudengo Ama Abesbatzaren eskutik. Bi abesbatzak 2003an ezagutu ziren eta ordutik zegoen Colegio del Centenario Nafarroara etortzeko nahiarekin. 13 urte pasa behar izan dira, baina urteurrena aprobetxatuz Sakanan izan dira. Javier Ollo Altsasuko alkateak harrera egin zien.

11 GALDERA



Helena Santano eta Koldo Arnanz zaharberritze lanetan.

"Zuhaitzarekin nuen lotura sentitu dut berriz"

Helena Santano artista "Altsasuko den guztia" irudikatzen duen eskultura zaharberritzeko lanetan boluntarioa da. Zaharberritzean eskultura, bizitza eta herriaren arteko metaforak sortzen direla azaldu du.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Eskultura zaharberritzen boluntarioa zara, zergatik?

Alde batetik, gure herriko ondare kulturala eta memoria delako, eta, beste alde batetik, ondarea mantentzeko eta zaintzeko adibide izan daitekeelako. Artista naizenez beste artisten lanak zaindu behar ditut.

2 Altsasuko irudia edo sinboloa da. Berezia izaten ari da zaharberritzea?

Haurrak ginela plazan zegoen zuhaitzean askotan jolasten genuen. Altsasuarrendako zuhaitz hori garrantzitsua zen. Nahiz eta hil garrantzia handia izaten jarraitu zuen zuhaitzak. Zaharberritze prozesu honetan geruzak kentzen eta garbitzen ari

garela guztiok ditugun geruzak kentzen ari naizela iruditzen zait. Hau da, metafora bat egiten dut. Eta zuhaitzak eskertzen zuela zirudien. Herriko zerbait dela sentitzen duzu.

3 Zer lan egin duzu?

Urte hauetan linazi-olioa bota dute aurretik egurra lixatu gabe eta dena laua bihurtu da, ez da

zizelkatze lanaren kalitatea ikusten. Beraz, lehenengo urratsa disolbatzaile indartsu batekin garbitzea izan da. Eta gero bisturi batekin koipe guztia kendu dugu. Koldo Arnanz eta biok egon gara Elur Uribarrena artistaren alabaren gidaritzapean.

4 Aurretik zaharberritze lanak egin dituzu?

Artelan baten zaharberritze lanak ez ditut egin. Baina auzolaneko lanak bai. Identifikatua go sentitzen naiz horrelako lanekin.

5 Eskultura zaharberritzea beharrezkoa zen, ez?

Eskultura kanpoaldean dago, kalean, eta intxaurren baten egurra da, hau da, ez da haritza bezain indartsua. Gainera, porlanezko oinarri batean dagoenez euri ur guztia filtratu da eta barrutik guztiz desegin da. Kalean egiten diren eskulturak metalezkoak edo harrizkoak izan ohi dira.

6 Zer sentitzen zenuen egoera horretan ikusten zenuenean?

Uste nuen okerrago zegoela. Altsasuko auziarekiko paralelismoa egiten dut. Zikinkeria asko bota dute herriaren eta gazteen gainean eta orain geruzak kentzen ari direla egia ikusten ari da. Eskulturarekin berdina gertatu da. Lehen ez genituen figurak ikusten eta zikinkeria kentzean ikusi ahal ditut argi eta garbi. Niri kezkatzen ninduen zen txikitan izan nuen zuhaitzarekiko lotura horrek. Eskultura egin zutenean lotura hori galdu nuen. Eta orain zaharberritzean sentitu nuen lotura berriz. Zuhaitzarekiko lotura.

7 Zer da eskulturatik gehien gus-tatzen zaizuna?

Iparraldeko aldean zizelkatua dagoen emakume baten irudia. Emakume horrek feminitatea sinbolizatzen du eta espresio gehien duena da. Oso integratuta dago eta begiratzen duze-nean begiratzen dagoela dirudi.

8 Zenbat gelditzen da?

Dena ongi badoa eta mugitzean apurtzen ez bada azarora arte arituko gara lanean. Orain finkatzeko produktua ongi hartzea behar dugu eta estruktura gogor bat sortu. Apurtutako zatiak egingo dira ere. Ondoren, koloreekin margotuko dugu.

9 Nola uztartu dituzue zaharberritze lanak eta zuen lanak?

Koldo goizetan zegoen eta ni Elurrekin goizez eta arratsalde egoten nintzen oporrak zirelako. Orain bakarrik arratsalde. Oso gustura nengoen, ez nuen lanera itzuli nahi.

10 Esan duzu eskultura kenduko duzuela, nola hartuko du jendeak?

Nik uste jendeak pentsatuko duela ez dela itzuliko. Batzuek pentsatu dute hobe dela horrela, eskulturarik gabe, eta beste batzuek esango dute ea zertan ari garen eskultura kentzen.

11 Etorkizunerako zer?

Eskultura bat kalean jartzen denean jakin behar da gero zain-tze eta mantendu lanak egin behar direla alde guztietatik. Ez da bakarrik administrazioaren kontua, ezta herritarrena ere. Denena da. Paper bat lurrera botatzen ez dugun bezala, eskultura zaindu behar dugu.

Bazkide zozketa

Traileko sariak:

1. SARIA:
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
DONOSTIAKO AQUARIUM MUSEOA:
SARRERA BANA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN